

GASTAIZ

GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

GASTEIZ

Elkarrizketak

Fernando Auzmendi


Iñaki Gil

Musika

La Xeta Paxote

Gizartea

Kale gorrian



88ko maiatza gogoan

GAZTETXEA

10 urte bete ditu

GEU ELKARTEAREN IV. BATZAR NAGUSIA

Etorkizunari begira

XABIER RIKO / GEU ELKARTEKO BATZARDEKIDEA

Gero eta euskaldunagoa da Gasteiz, baina ezagutzarik erabilerara dagoen jauzia haundiegia da. Hau da, euskal hiztunoi ez zaigu ziurtatzen etorkizun euskaldunik. Euskaltzaleon nahia eta gogoia etorkizun hori finkatzea eta zabaltzea da. Eta geroari begira, zenbait galdera egitea otu zait Geu Elkartearen IV. Batzarra egingo den hilabete honetan. Adibidez, koka gaitezen 40 urte beranduago, 2.038 urtean, neu bizirik banago, agure makiladun ilezuri edo ilegabekoa izan naitekeen urtean: umeen eta gazteen solasaldiak euskaraz izango al dira beti edo ia beti? Horien aiton-amona askok -gaur egungo gaztetxoek- euskaraz egingo al diete? Kanean egingo dugun lehenengo hitza heldu eta gazte ezezagunekin euskaraz izango ote da? Gasteizerako telebista kate lokal euskalduna izango dugu? Beste holako hamaika galdera egin daitezke eta neurri handi batean gaur egungo lanak ekarriko du erantzun horiek izatea: Bai, ez ala erdipurdi.

Eta egia esan, handia da euskaltzaleon lana eta gogoia Gasteizen: Gurasoak parkeetan umeekin jolasean, irakasleak ikastetxeetan, ludotekak, gizarte etxeak, haurtzaindegiak, gazteentzako aisialdi taldeak, Trikitrixa Eskola, Bertso Eskola, Bagare euskal tokia, merkatari batzuen lan estimagarria, Geu Gasteiz aldizkaria, Euskarri, Geu Elkarte, Geurekin mendira, Denon Eskola, Euskaraz Bizi, AEK, IKA, Hegoalde, Udaberria, Floridako Kultur Etxeko Kultur eskaintza, EHE, Euskaltzaleon Elkargunea... eta barka nazatela aipatu ez ditudan guztiak...

Baina ez da erraza gure hirian euskaraz bizitzea hainbat arrazoiengatik. Hona hemen batzuk:

-Aipatu ditudan ekimen horiek guztiak irlak dira erdal itsaso batean. Gasteizen erdaraz aritzen diren talde, erakunde eta abarren izenekin bete daitekeelako ez bakarrik aldizkari honen orrialde bat, aldiz-

kari osoa, baizik.

-Euskarazko ekimen askoren berri ez zaio euskaldungo osoari iristen.

-Ez dugu bakarrik kantitatean lehiatu behar, kalitatean eta beste hainbat kontutan ere bai.

-Erakundeen lana erdipurdikoa da.

-...

Euskalgintzan ere behar ugari ditugu. Alde bate-tik, euskaraz bizitzeko beharrezkoak diren hainbat proiektu ez dira oraindik ez planifikatu, ez gauzatu (euskaldun bilguneak, ume eta gazteen euskararen erabilera bultzatzeko taldeak...). Beste bat eta garrantzitsua oso, oraingoz aurrera atera ezinik dabil: Araba Irratia. Bestaldetik, badago modu planifikatuagoan eta eratuagoan lan egiteko beharra, aurrera eraman nahi ditugun ekimenetan. Berauek gauzatzeko, noski, ez gara erre behar, geure indarren arabera eta lehenetsunak markatuz jokatu beharra daukagu. Baina honetarako zelan gabilza ilusioz eta gogoz? Hauek koktel ederra osatuko lukete erantzunkizun ttantta batzuekin.

Ez dago formula majikorik honetarako, baina GEU elkarteak bazkideak bilduko gara IV. Batzar Nagusian maiatzaren 22an, ahalik eta giro hurbilen eta atseginean holako gaiei buruz hitz egiteko. Bileran amaituta, afaltzera joango gara, eta Jon Sarasua eta Euskitze bertsolariak izango dira egun horretako gure koktel bizigarria, gurea eta afarira etorri nahi duten euskaltzale guztiona. Bertso afarira joateko GEU elkartearen eman behar duzue izena. Telefonoa: 945 22 21 53. Bertan etorkizun hobea opa izango diogu geure buruari, eta bide batez XXI. mendeko belaunaldi euskaldun berriei ere bai, Gasteiz euskaldun baten ametsa gauzatu dadin. Amets horren autoreak, gu ere bagara eta badaukagu zer esanik eta zer eginik.

Geu Gasteiz berria, kolore guztiak.

Naturaren isladak



GU GASTEIZ, Gasteizo
Euskaldunen hilabetekaria

ERREDAKZIOA:
Pedro Asua, 2 - 3.a
Telefonoa eta Faxa: 22 21 53

ZUZENDARIA:
Estibru Breñas Glez. de Zarate.

ERREDAKZIOBURUA:
Asier Pz. de Karkamo.

ERREDAKZIOA:
Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz
de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Paul
Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.

ARGAZTIAI:
Ederla Sanz.

MAFETA:
Guztaqain Argitarapenak
Telefonoa: 970 40 15 46

INFCGRAFIA:
Alex Badillo.

KOMITIA:
Iñigo Sarasola

NATURAREN ISLADAI:
Conrado Tejada.

KOLABORATZAILEAI:
Edurne Begiristain, Elbira Elejalde,
Ainhara Zuazabeitia.

PUBLIZITATEAI:
Karloz Fdez. de Betoloz.

BANAKETA ARDURADUNA:
Txipi Ormaetxea.

INFRIMATEGIA:
Gertu Koop. E. (Zubillaqra, Oñati)

ALE KOPURUA:
2.500

LG: VI-582/92
ISSN: 1133-0988
Franko Itundua 48/27 zenb.

ALDIZKARI HAU PAPER
ECOLOGICUZ EGINA DAGO

Geu Gasteiz hilabetekariak
ez du bere gain hartzen
berten adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik.



MUSIKA

La Xeta Paxote:

4 neska,
4 punkzale,
4 lagun

24
ORR.



irritziak

- 30 Edurne Begiristain**
Drogak eta mugimendu alternatiboak.
- 33 Elbira Elejalde.**
Film-erik-filme, kontu-kontari.
- 34 Asier Pz. de Karkamo**
Gora Itoitz.

laburrak

- 6 Euskara**
A ereduak gora egin du.

elkarrizketak

- 13 Fernando Auzmendi**
Indiako oihanean txalapartari.

erreportaia

- 11 64 lagun kalean**
Iraunbizitzeko La Calle saltzen...

kirolak

- 18 Gaztedi**
Emakumezkoa eta rugbya bateginik.
- 19 Boteproton:**
Iñaki Gil, harnjasotzailea.

kultura

- 22 Alde Zaharra maketan**
Hiri historikoak bizi erakusketa.
- 24 Musika**
La Xeta Paxote

- 26 Gaurkoak eta betikoak**
M. Clan eta Lorelei.

- 27 Kultur Agenda**
Bertsoaldia, Ikaperia, Prudentzio
Deuna Argazki Lehiaketa,
Erakusketak, Musika, Ibilaldiak,
Hitzaldiak...

ohikoak

- 4 Bertsoa**
Txapelketaren bihar-
amona: Otamendi vs. Perea
- 5 Kalea mintzo**
- 28 Piti-pata**
- 32 Komikia**

aurkibidea

ELKARTASUNA

Fernando Auzmendi Perdi Indiako
oihanean izan da. Orain, Gasteizen
hango laguntzeko kanpainari ekin dio.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak
diruz lagunduriko aldizkaria

bertsoa

Gasteizko bertso eskolaren eskutik



IZENA: OIHANE PEREA.

IZENBURUA:

ASIER OTAMENDIRENTZAT.

Orain hiru urte lehengo aldiz pasatu zen finalera harrezgeroztik pelotoletik beti egin du aurrera sorpresariki ez digu eman aurtengo hontan atzera pasatu baita hasieratik gidatuz gure karrera faboritua izatetik txapelduna izatera.

Mailaz aurrera eginaz doa Prudentzio sariketa saiatu gara zaila ipintzen zure artean kolpeka baina halere, hain xamurra da zure bertsoen fereka. Topa dezagun zure omenez txanpainarekin barreka ta zorionak, bihotz bihotzez merezia duzu eta.

Asier Otamendik iazko mailari eutsi eta Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama Bertsolari Txapelketa erraz eskuratu zuen. Oihane Perea, bigarren, emakumeak indartsu datozela demostratu zuen. Rikardo izan zen denen gogoan.

Ezustekorik ez

Asier Otamendi da aurten ere Arabako bertsolarien artean pozik egoteko arrazoi gehien dituen, eguraldi txarrari muzin eginez, apirilaren 19an lorturiko txapelari esker ez baitzaio euri tanta bat bera ere gorputzera eroriko. Bigarren txapela du, gainera, iaz ere Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama Bertsolari Txapelketa (Arabako Txapelketa) bere egin baitzuen.

Aurten, ohiturari bizkarra emanez, emakumezko bat izan du bizkarzain. (Bizkarra eman... bizkarzain... ez ote da hori poto izango?) Ez da harritzekoa datu hau, azken urteotan erakutsi izan baitute neskek historian zehar egondako diferentzia historikoa baino ez dela. (berriz!).

Oihane Perea izan da aurten, baina datorren urtean, edota hurrengo-

tan beste edozein izan daiteke, Aitziber, Irati, Izotz... den-denak fin datozkigu eta.

Gu, txapelketaren biharamonaren biharamona aukeratu genuen (hau da, Otamendiren ajearen biharamona) txapeldun eta txapeldunordearekin egoteko. Alaitasuna nagusi izanik ere, erreflexiorako parada izan zuten Asierrek eta Oihane Txustako merienda ordua. Akatsak zuzendu, datorren urteari begira burua prestatu, eta errebantzarako u-

nerik ere ez zen falta izan. Itxuraz Oihane ez zetorren bat epaileek igandean erabakitakoarekin eta txapela beretzat zela, argazkian ikusten duzuen lez, argudiatu zuen.

Lasaitu zutenean, entsaiora bueltan, biek Rikardorentzat bertso polit bana bota zuten, laster berriz taulatuan egongo delakoan.



Biharamona erreflexiorako eguna izan zuten txapeldun eta txapeldunordeak. Baita errebantzarako ere!



EGOA LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 14 88 95

jo eta ke
**TXAPELARRI
TABERNA**
Aiztogile (KUTXI) kalean

Argazki - Estudio
Erramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

IRVSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

kalea mintzo

TESTUARI NAGORE ZEBERIO ARGAZKIAK ANIA IBISATE



ARETTO
URKASLEA

1.- Bai, egia da. %99 gure errua da eta %1a giroak eragiten du. Ez gara euskaltzale sentitzen.

2.- Ez, nik uste irakaskuntzan modan dagoela erdaraz egitea. Hezitzaileek gainera ez dute euskararen alde behar beste egiten.

- 1.- Euskaldunok euskara bihotzean eta erdara expainetan esaerarekin gure burua identifikatu beharko genukeela uste duzu?
- 2.- Hipokresia edo itxurazalekeria honen errudun direla deritzozu?

EUSKARA

Ziur nago denok entzun duzuela noizbait J. M. Artze idazle euskaldunaren esaldi famatu hau: Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik. Alde batetik, esan beharra dago arabarrok, eta horien artean gasteiztarrok, harro egon gaitzkeela euskara bultzatzeko egin diren zenbait ekintza burutzearekin. Hala ere, geroz eta jende gehiagok euskara edo euskaraz ikasten duen arren, gure kaleetan kasik ez dugu berau entzuteko aukerarik izaten eta honi zergaitia topatu nahian abiatu gara ale honetan.



MARIA PEREZ
URKASLEA

1.- Bai, batez erehiri handietan, euskara ikasterik izan ez duen hainbat jende pilatzen baita. Nik euskaraz jakingo banu, harro-harro mintzatuko nintzateke.

2.- Ez dut uste hipokresia denik, kasu askotan ezjakintasuna baino ez da.



EMILIO PEREZ
URKASLEA

1.- Neurri batean egia da, baina nik bereziki ikusten dut euskaldunok bihotzean ezezik, expainetan ere badugula euskara.

2.- Ez da itxurazalekeria, hizkuntza batean edo bestean duzun erraztasunaren arabera egiten baita hori.



MAIDER PEREZ
URKASLEA

1.- Topiko hori ematen da baina errealitatean denori gustatuko litzaiguke euskaraz egitea.

2.- Amorru handia ematen dit abertzaletasuna aldarrikatu eta, nahiz eta euskaraz hitz egiten jakin, ez erabiltzea. Ez dut hori ulertzen



GALDER PEREZ
URKASLEA

1.- Bai, noski. Agian zenbaiti errazago egiten zaielako da, baina hala ere beste kasu askotan alferkeria dela deritzo. Ez dugu behar beste teko ardura hartzen.

2.- Bai, izan daiteke. Sarritan atzerrian euskaraz mintzatzen gara eta etxean ez.



AMAIA UGARTE
URKASLEA

1.- Guztiz egia da, Gasteizen behintzat. Euskaraz maitatzen duela esan eta gero gasteiera besterik erabiltzen ez duen lagun asko dago.

2.- Euskaldunoz asko hitz egiten da eta atzerria gozanean argi utzi nahi izaten dugu euskaltzaletasuna.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin
- ERAMAN ETA JAN
- "kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ

143
geu gasteiz

Euskal ereduak gorako bideari eusten diote

Gasteizko Udal Haurreskoletan datorren urtean hasiko diren haurren gurasoek euskarazko ereduak aukeratu dituzte aurtengo urtean. Azken urteotan gorpuzturiko bideari jarraiki, irakaskuntza hasteko adina duten eta haurreskola publiko-



ak aukeratu dituzten hiriko haurren %90,4ak euskarazko ereduak hautatu dituzte.

D ereduak izan da, gainera, igoera jasan duen bakarra, bai B eta baita D ereduak ere mantentzen baitira. Dagoeneko ehun haurretatik ia 32k aukeratzen dute euskara hutsezko irakaskuntza.

Aurtengo, Lakuabizkarrako Udal Hau-

Hainbat Udal Haurreskolek (irudian San Martingo) datorren ikasturteko bezero berriei egokitzeko lanei ekin diete.

rreskola berria martxan jarriko den arren, 160 bat haur geratuko da haurreskola publikoetan ikasten hasi ezinena. Izan ere, bi urtetik beherakoentzat Gasteizko irakaskuntza publikoaren eskaintza 1.150 lekukoa bada, 1.314 izan dira Udal Haurreskoletan ikasketak hasteko aurkeztutako eskerak.

10 bagare!

Hamar urte hamar! Horiexek betetzen ditu Bagare Euskal Tokiak aurtengo. Ezin ezusteko-tzat hartu, gainera, hainbeste-koak baitziren hasiera-hasieratik Bagarekideek jarritako indar eta gogoak.

Hamar urte bete eta hamaika ekitaldi dira urteurren berezi hori ospatzeko antolatatu dituztenak. Jada horietako guztietako asko burutuak diren arren, hona hemen egiteke geratzen diren beste batzuk.

Urtero bezala (hau baita Bagarek antolatatu ekitaldi anitzen artean aipagarrienetakoa) Arabako Helduen Kantu Txapelketa hilaren 9an izango da. Aurtengo Arriaan ospatuko da, bertan egingo baita Arabako Ikastola Pribatuak urtero ospatzen duten Araba Euskaraz festaren 98ko aldia.



Maiatzaren 11, 13 eta 15ean, berriz, diapositiba eta hitzaldi sorta izango da Bagaren. Mendia eta bidaiak izenburupean, Amaia Elozegi, Ruben Egia eta Maribel Diazek beren bizipenak helaraziko dizkigute.

Eta hadi! Data zehatzik heldu ez zaigun arren, Bagarek Bardeetara bizikletaz joateko martxa bat prestatzen ari zela jakin genuen, hile honetan ere burutzeko. Horretaz eta beste

Psikologo talde batek psikologo euskaldunak bilduko lituzkeen taldea sortzea du buruan. Udako Euskal Unibertsitatean sendotuko dira proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren harreman, elkarrizketa eta abar luzeak.

hainbat gauzez bustitzeko hurbil zaitez, telefonoz edo pertsonalki Bagarrera. Mereziko dizu!

Gure partetik besterik ez. Bakarrik bihotz bihotzetik irteten zaigun hitza, 10 urtetan Bagarekide zaretenok merezi baino askoz ere gutxiagotan entzun duzuten. ZORIONAK!

Bagare Euskal Tokia

Aiztogile (Kutxi) kalea, 62

945 25 10 84

Errege Atea 9

bar • restaurante • albéniz

GASTEIZ

plató

TABERNA

☎ 22 65 64

GASTEIZ

Zaldiaran Plaza, 10

JANTZI ETA OPARIAK

Aiztogile (Kutxi), 27

Tfnoa: 26 07 10

GASTEIZ

SARTU

euskaldun izan nahi dugulako

EUSKAL HERRIA EUSKALTEGI BIHURTU DUGU!

æki

Zurekin 600.000 irakasle izango gara 2.300.000 irakasle euskalduntzeko

Jose

Peru 8 Mardones 8 Arana 30

22 60 50 26 35 40 25 24 00

izena eman **æki** n!

EL BAR Kutxi

eguneko

Telebistan ageri nahi?

Durangoko ekoiztetxe batek laster telebistaz emango den lehiaketa saio bat prestatzen ari da. Saio berria denez eta, noski, jendeak oraindik ezagutzen ez duenez, hona hemen informazioa parte hartu nahi duzutenentzat. Interresgarria dela deritzogu.

Saioan lau partehartzaile ibiliko dira lehian. Eta zertan? ba, euren proiektu edo ilusio pertsonalak finantzitzeko egin dituzten zorrei ahalik eta diru kopuru handiena murrizten. Helburu materialista zein gizatiarrak

Hala Bedik hamar urte

10 urte bete ditu Hala Bedi Irratiak ere. Dударik gabe uzta oparoa ekarriz zigun 88ko udaberri hark. Bagarek eta Gaztetxeak bezala ekitaldi sorta antolatu zituen Gasteizko Irrati libreak. Antzerki parodia, kontzertuak, bertsolariak (gaztelera!)...; dena dena umore ezinhobean eta jendetza izugarri baten aurrean.



izan daitezke. Ametsak gauzatzeko aukera ezinhobea dirudi. Interesik izatekotan, dei ezazue honako telefonora: 94 621 53 00 (Asier Bilbao)

Joselu Anaiak musika talde gasteiztarrek Siguraya izeneko diskoa grabatzen dihardu, Mugarik Gabeko Musikariak Gobernuz Kanpoko Erakundeak musikari kubatarrak laguntzeko aurrera daraman kanpainaren barne.

Gainera, jada estudio berriak martxan dira eta baita estraineko hainbat emanaldi ere. Jakin izan dugunez, laster ekingo diote arratsalderoko euskarazko magazina emititzeari. Abisatuko dizuegu!

Gaztetxea aipatu dugunez, datoren hileko Geu Gasteizen 10 urte hauei errepasso txiki bat emango diegu.

EAJ-K BI BATZOKI BERRI ZABALDU DITU
Euzko Alderdi Jeltzaleak bi taberna berri zabaldu ditu Araban azken hilabetean. Langraiz (apirilaren 5ean) eta Oion izan ziren, hain zuzen ere, EAJak herrialdean zabaldu dituen azkenengo batzokientzako aukeraturiko herriak. Gasteizen dituen lauetaz gain, hamairu dira jadanik jeltzailleek Arabako gainontzeko gunetan dituzten tabernak.

ASKAPENAK BRIGADISTEI DEIA ZABALDU DIE JADA
Askapena erakundeak aurtengo udan burutuko dituen brigadak prestatzen hasia da dagoeneko. Brigada horien helburua borrokan ari diren herriei, elkartasunari bultzada emanez, eskual gizartearen partehartzea hurbiltzea da. Interesaturik daudenak maiatzaren 17an Barrian antolatu den jardunaldira hurbil daitezke, gaian sakontzeko. Askapenak aurten honako herrietara bidaliko ditu brigadistak: Ipar Mexiko, Txipapas, Irlanda, Guatemala, Palestina, Andaluzia, Kuba, Ekuador eta El Salvador.
Askapena (Araba)
Aiztogile kalea, 15 behea
945 28 08 47 eta 945 25 51 41

Sei hilabeterako begien

bistatik kenduko gaituzu

bi lentila-kaxa eta soluzio bakarreko

beste bi poto **15.000** pta/n

eta gainera urteko bat opari



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • OligoLuz, 33 (inbultategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ



LARUNBAT ARRATZALDEZ
ZABAIK: 5,00 - 8,30

BAUSCH & LOMB

INFORMAZIÓ ZAILLEZ 300 34 35 36 TELEFÓNORA DEITUA. IZAKINAK BUKATU ARTE.



Schommer Arte Ederretako Akademia-kide

Alberto Schommer, gure herrialdeak inoiz eman duen argazkilaririk esanguratsuenak, San Fernandoko Arte Ederretako Akademiaren sartu zen apirilaren 26an. Horrela, bere 60 urterenaren atarian, argazkilaria arabarrak, Estatuko artista batek amets dezakeen onspen handiena jaso zuen. Madrilen egindako ekitaldian Schommerrek irakurri zuen agurran horrela definitu zuen bai argazkialaria, baita, era berean, bere burua ere: "argazkilaria badu humanistaren zati txiki bat, politikoarena beste zatitxo bat, baita filosofoarena ere eta, azkenik, intuikorraren zati handi handia".

Ikaperiak ere bere 10. aldia ospatuko du aurten

IKA euskaltegiek urtero ospatzen duten Kultur Asteak hamar urte betetzen ditu aurtengo maiatzean ere. Izan ere, Parisen 68an gertatu bezala eta portadan aipatzen dugunez, 88ko maiatzak sekulako uzta ona utzi zuen gure hirian. IKArekin Kultur Astea hilaren 11tik 15era bitartean ospatuko da, astelehena eta ostirala artean alegia. Ez dezagun ahaztu, ohi bezala, larunbatean 16an Ikaperia ospatuko dela. Aurtengo Ikaperiaren egitaraua, gainera, oso-oso interesgarria dela esan behar da, besteak beste Oskorri taldea ekarriko baitute Ikakoek.

Venancio del Val gasteiztar idazleak Landazuri Elkartearen 1997 urteari zegokion Saria jaso zuen apirilaren 23an, Armando Llanos artegizonak egurrean eginiko eskultura. Del Val Calles vitorianas eta Mujeres alavesas liburuen egilea da.

KULTUR ASTEA

astelehena 11.
ANTZERKIA: goizeko izarra taldearen Ama Pasota arratsaldeko 20:00etan Beñat Etxeparen. 300 pezetan.

asteartea 12.
IPUIN EMANALDIA: Jose M. Karrerek Kondoi guttiak badute bere istorioa kondatuko du goizeko 10:00etan eta arratsaldeko 20:00etan Beñat Etxeparen. 200 pezetan.

HITZALDIA: Jose maria Satrustegi, Mitologia, sorginak eta hainbat kontu arratsaldeko 16:00etan Beñat Etxeparen.

asteazkena 13.
EUSKAL LABURMETRAIAK: Jon Anduezearen parthartzarekin Txotx, Anabasa eremua eta 4. galeriatik goizeko 11:00etan Guridi zinemetan. 300 pezetan.

MAHAI INGURUA: Euskal Selektzioa PARTEHARTZAILEAK: Inaki Berruet (Alaveseko Jokalaria), Joxe M. Agirre Kultura Sailburuordea (EAJ), Endika Guarrotxena (HB), Xabier Intxaurrea (EA) eta Inigo Santxo (abokatua eta ESAIteko partaidea)

arratsaldeko 19:30etan Beñat Etxeparen. 300 pezetan.
osteguna 14.
KONTZERTUA: Lorelei arratsaldeko 20:00etan Beñat Etxeparen. 300 pezetan.

ostirala 15.
POESIA EMANALDIA: Bobby Xum & Poeta Muskerrak taldearekin (Harkaitz Cano, Aitor Sarriegi eta Jon Goenaga) goizeko 10:00etan Beñat Etxeparen.
MAGIA: Txan Handia arratsaldeko 16:00etan Beñat Etxeparen. 300 pezetan.

IKAPERIA larunbata 16.

KALEJIRA. goizeko 13:00etan Aitzogile (Kutxi) kalean
BERTSO BAZKARIA. 14:30etan Landatxo polikirodegian.
Andoni Egaña, Jexux Mari Irujo, Jon Maia eta Gasteizko Bertso Eskolako kideak. 1.500 pezetan.
OSKORRI & THE PUB IBILTARIA. 18:30etan Beñat Etxeparen. 300 pezetan (Bertso bazkarian sarrerak amaituko balira ez lirakeke Antzokian gehiago salgai jarriko)
KONTZERTUA: MAL DE OJO ETA TRUKITIXA KONTRAIRO 21:00etan Gazteizan. 300 pezetan.

LANDABURU AKADEMIA
KLASE PARTIKULARRAK
Guatemala, 12. behea. 12 09 50

AMILAMIA
arropa eta osagarriak
Pintore kalea, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

PUBLIZITATERIK MERKEENA ETA ERAGINKORRENA
GFLU GASTEIZ
PEDRO ASUA, 2. 3A.
22 21 53

EDAN • JANTEGIA
Oleaga
Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak
ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile (KORRE), 14 Mikel Deunaren Pasabidea
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

Gasteizko Kale izendegi berria aurrera darrai!

Baten batek uste (nahi, espero edo auskalo zer!) bazuen ere, Gasteizko kale-izendegia, bere euskal bertsioan, jakina, ez da galdu eta hautsez bete kajoi batetako zoko ilunetan edo euskaldun batzuen oroimenean. Ez horixe!

Euskal kale-izendegia 1996ko uztailan amaitu zuten. Hala ere hau irakurri orduko, eta azken bi hilabete hauetako kontua da, egileek, -GEU elkarteak, Euskaltzaindiak eta Udaletxeko Euskara-Zerbitzuak birritan elkartu dira osotu, akats txiki batzuzuzendu, ahal den neurrian ondu eta... Horra hor argazkia.

Honek guzti honek bi helburu omen ditu: Kale-izendegia argitaratu eta ezagutarazi gasteiztarren artean. Baina...

-Nork argitaratuko du hain beharrezkoa dugun lan mardul hau? Udaletxe berak ala erakunde pribatu batek? Nori legokioke? Egileek Udaletxeari eskatu al diote? Zer dio Alkate Jaunak? Zer alderdi politikoek?

-Noiz ezagutuko dugu hiritarrok? Eta noiz erabiliko? Zenbat denbora beharko dugu txip mentala, aldatzeko eta ohitzeko kale-izenak euskaraz idazten eta erabiltzen? Eta ordenagailuetako, (hau ere txipa al da?) fitxeroak eta pegatinak euskaratzeko?



Bilera anitz burutu dira jada kale izendegiaren auzia bide onetik joan dadin. Irudian horietako bilkura bat.

Antzeko lana dugu Udaletxeak eta euskaldunok honetan ere: Gure burua euskalduntzea.

Geu Elkarteko Batzar nagusirako deia

Maiatzaren 22an, arratsaldeko 19:00etan Geu Elkartek bere urteroko Batzar Nagusia egingo du Landatxo Gizarte Etxean. Elkartekideek jada hasiak dira data horretarako deialdiak jasotzen. Aurten, hitzorduaren ostean, Bertso Afariak goza ahal izango dira Geukideak. Berau Irrintzi Elkartean (Kubo kalean) izango da, gaueko 22:00etan. Geu Elkartek gonbidatu dituen bertsolariak Jon Sarasua eta Xabier Euskitze izan dira. Afarira joan nahi dutenek aldeztu aurretik eman beharko dute izena, Geu Elkartera deituz: 22 21 53.

HENRIKE KNÖRREK
ARABAKO EUSKARA DU
MINTZAGAI AURKEZTU
BERRI DUEN AZKEN LIBURUAN

Lo que hay que saber sobre la lengua vasca en Alava da Henrike Knörrek argitaratu duen azken liburua. Vital Kutzaren laguntzaz kalera-turiko lan honetan, euskaltzale arabarrak euskarak gure herrialdean izan duen bilakaera aztertzen du. Liburua aipaturiko aurrezki kutzaren bezeroen artean banatzen hasi zen apirilaren 27an Prudentzio deunaren data aprobetxatuz, hain zuzen ere. Orotara 25.000 ale banatuko ditu Vital Kutzak. Liburuaren aurkezpenean Knörrek halako liburuak egin behar izatea atzerapausutat hartu zuen: "Gure Erakundeen ahuleziak eta herri bezala ditugun eskubideen ukapen sistematikoak Arabako bi hizkuntza ofizialeko baten ezjakintasunera eramán gaitu". Henrike Knörr Euskaltzaindiako lehendakariordea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologian Katedrarena da.

J A T E T X E A

Aiztogile (KUTXI), 26 tfnoa: 28 81 47
GASTEIZ

LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 25 56 90 **GASTEIZ**

HEGOALDE
euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lajarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitetz!

ARABA EUSKARAZ'98
orain dugu garaia

ostiraletan 5:30-8:30
larunbatetan 11-13:30
5:30-8:30

POSTA PASABIDEA, 12

geurekin mendira

NORA: APELLANIZ - ARRILUZA - MARKINIZ

(SAN JUSTI 1029M)

NOIZ: APIRILAREN 5EAN

Apirilaren bostean nahiz eta eguraldi kaxkarra izan, Txapelan gure betiko biltokian, hemeretzi lagun elkartu ginen abiatzeko prest. Gure bidearen abiapuntua Apellaniz herria zen. Herri hau, Arabako mendialdeko ederrenetakoa da. Herria bukatzen den tokian eskuinaldeko pista bat hartu genuen baina berehala konturatu ginen hori ez zela nahi genuen bidea eta ezkerreko aldera mendi barrenean, sasi eta lokatz artean sartu ginen bideska bat aurkitu arte. Atzean, ikusi gabe utzi genituen zortzi metroko zirkunfentzia hartzen duten gaztainondo zoragarriak.

Karrantan urtegitik mendebalderantz jo genuen. Malda osoa igo eta gero, Uzarrateko harrizko horma bitxiak ikustera joan ginen. Kazkabarrak aurpegian jotzen gintuen, beraz, ez zen egunik aproposena paraje zoragarri honetan geldituz luze egiteko. Ordu laurdenean, eskuin aldera hartuta San Kristobal mendian geunden. Eguraldia hobetuz joan zen eta gailurretik oso ikuspegi

ederra ikusten zen: Kantabria mendikatetik Gorbeara, Aizkorritik Obarenes mendietara. San Justira joateko hegomendebalderantz abiatu ginen amildegi ondotik. Ezkerreko aldean, Izkiz baso zabalaz gozatu ginen. Adituen ustez Europako marojo hariztirik hoberenatarikoa da.

Behaldez, bi kobazulo ikusten dira, horietako bat "La cueva de las señoritas" izenekoa. Bertan, Apellanizko bi ahizpa bizi izan ziren, legena izateagatik herritik baztertuak. Kolas izeneko iturrian edaten zuten eta herritarrek igotzen zietenarekin mantentzen ziren.

Hamaiketakoaren ordua iritsi zitzaigun, bueltara ibili ginen babesleku bat aurkitu arte. Eguzkia atera zenez, goxo-goxo egon ginen tripa bete arte. Indarrak berrituta, San Justi mendigailurrerantz abiatu eta handik Arratia menditartetik Arluzeara jeitsi ginen. Markinezerako errepidea hartu eta bidean, gure lagun batzuk Gaztelu izeneko harkaitzera igo ziren. Bertatik oso ikuspegi ederra ikusten zen: aurrean San Andres izeneko haitz zorrotza, atzean Asunza mendiak, eskuinaldean Orkiza sakana eta Morla gaina.

maiatza



Gazume (1013) Ermio (1072)

eguna **apirilaren 17an**

irteera goizeko bederzti t'erdietan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean.

Autobusez joango gara.

itzulera arratsaldeko 6ak aldera

GEUrekin Mendira GEU Elkarte eta GEU GASTEIZ

aldizkariaren ekimen bat da

tfnoa.: 14 62 96 (Edure / Inaki)

San Juan basiliza erromanikoaren ondoan autobusa gure zain zegoen. Atzean, ikusi gabeko paraje asko utzi genituen: Izkiz baso barrena, Markiniz herri ederra, kobaz beteriko ingurua, haran interesgarriak,... Hurrengo baterako izango da, dudarik gabe.

BEGOÑA ARIZNABARRETA

ZUEN SEME-ALABEN EUSKARAREN SENA INDARTU NAHI BADUZUE... ZATOK GUREKIN!

NORENTZAT?

Aurten, lau urte bete edo betetzear daudenengandik hasi eta zortziren inguruan dabilzanentzat.



haurrak
oporretan,
euskaraz
holgetan

IZENEMATEA IREKITA



Nieves: (25 98 55)
Natxo: (17 02 45)

KUOTA:

3.000 pta
(baskideak,
Baskiaren Ingurua
11.000 pta)



Gasteizko Udalak (Kirol Saila) diruz lagundutako iharduerak

"Euskaraz mintzatzeko hasi den haurra, gai da euskaraz jolastu eta gozatzeko"

EUSKARAZ



Astelehenetik Ostiralera, Uztallean gozaro

xakun, txakun, txakun- txa- txakun. Txalapartaren ahotsa Australiako indigenek jotzen duten *didgeridoo* haize-instrumentuaren soinuarekin nahasten zen Bangalore hiriko plaza batean.

Ramis, *Koruba* indiar gazteen buruzagietako bat, harriturik ikusten ari zen aurrehistorian girotutako gizon zuri horien ikuskizun bitxia. Haiei aurretik egokitu zitzairen makilekin dantza korubar bat antzetztea. Horrela, kultura zabalduz eta propaganda eginez, korubar gazte hauek bere herriaren egoera Indiako gizarteari ezagutarazten diote. Baina Ramisek orduan ez zekien hiru taula horiek jotzen ziharduten gizonetako bati euren herriarekiko interes handia berpiztuko zitzaiola, eta are gutxiago Indiatik oso urrun dagoen herri batetik korubei lagun ziezaiekeen aukera jaioko zela.

Korubak 50. hamarkada arte lasai bizi ziren Indiako *Kerala*, *Karnataka* eta *Tamil-Nadul* hegoaldeko estatuak batzen dituen basoetan. Ez zuten inolako harremanik kanpoko jendearekin, basoan murgilduta bizitza eginez, basoan eta basoaz jantzita.

Hala ere, data horretatik hona bizimodua zeharo aldatu zitzairen. Indiako hiru estatu

horiek, korubak eta beste tribu batzuk bizi ziren lurraldeak, interes ekonomiko handiak sortarazi eta indigenak basoetatik kanpo atera zituzten. Gune horretako zur-aberastasuna, turismorako eskeintzen dituen posibilitateak eta urtegi handiak eraikitzeke ahalbideak pisuzko arrazoiak izan dira indigenak, haientzat eraikitako zementozko etxeetan, baztertzeke. Gobernuetako mandatariek lurrak, lanabesak eta egurra agindu zituzkieten, baina bizitza aurrera atera ahal izateko ezinbestekoa dute te-landetan lan egitea, eurentzat hain premiazkoa den egurra oihanean ustelzen den bitartean...

Txalaparta, basoaren instrumentua

Fernando Auzmendi txalapartariak, sutondotan entzun zuen koruba indiarren istorioa. Bangaloren beraiekin izateko aukera izan zuen arren, hobeto eta sakonago ezagutu asmoz, bizitokian bertan izan behar zela erabaki zuen. Koruben harridurarako Fernando eta bere kideak Ramisen herrixkan azaldu ziren laguntzeko nahia helaraziz.

Nola bizi liteke arrain bat uretatik kanpo? esan

fernando auzmendi

Hamaika ordu emango genituzke Araba Euskarazko abestiaren konpositoreetako bat izan den txalaparta jolearekin hizketan. Txalapartari esker Indiara egindako bidaiari **koruba indiarrak ezagutu** zitu- en. Hainbeste kezkatu zuen Fernando haien egoerak, ezen Euskal Herritik laguntzeko prest baitago.

TESTUAK: RAUL SAEZ DE BURUAGA ARGAZKIAK: FERNANDO AUZMENDI 'PERDI'



Koruba indiarrek bere bizimodu mantendu nahi dute interes ekonomikoaren aurretik

zior korubar zahar batek Fernandori, indioen egocera uler zezan. Txalapartari araiarrak berehala jakin

zuen indiarren basoarekiko maitasuna noraino iristen zen, horrexegatik txalaparta ikusi eta jo bezain pronto instrumentuarekin maitemindu ziren.

Korubek debekatuta dute oihanean sartzea, horrela egurrik ez dutela hartu-

ko ziurtatzen dute. Basozainek ikusiz gero sekulako jipoiak jasan behar izaten dituzte indiarrek; tribuan gerlari figura ez dagoenez ez diete bortizki erantzuten. Bere erresistentzia pasiboa eta izpirituala da. Ene ustez nahikotxo ikasi beharko genuke haiengandik adierazten zuten Fernandok.

Horrexegatik, Fernandok txalaparta bat oparitu zienen, ospakizun galanta antolatu zuten indiarrek. Eta Fernandori herrixka guztietan txalaparta jotzen irakatsiko zutela agindu zioten. Elefanteek, zein tigreek eta horko zuhaitz ederrek txakun-txa-txakun erritmo alai entzun ahal izango dute Koruben txalapartari esker.

Txalaparta instrumentua baino erritmoa da

Zer da zuretzat txalaparta?

Niretzat ezagutzeko, bidaiatzeko eta sentimenduak adierazteko tresna bat da. Giza-harremanak lantzeko aukera dexente eskeintzen dizu. Itsasontzia bailitzan ulertzen dut txalaparta, zeinean sar zaitezkeen, norabidea zuzendu eta jendea eta beste herri batzuk ezagutu.

Zer betekizun betetzen du txalapartak zure ustez?

Jendearekiko benetako harremana lortzeko funtzioa betetzen du txalapartak. Telefono lanak bete zituen bere garaian, baina bere iturburua ez da hori, jendeak pen-

tzatzen duen bezala. Bestaldetik, Euskalerrarentzat txalaparta lehenengo mailako enbaxada da. Euskalerriaz zertxobait entzun duenak, hain primario eta primitiboa den instrumentua ikustean, aintzinako eta erabat desberdina den kultura batekin erlazionatzen du gure herria.

Zein da orduan txalapartaren jaioterria?

Ez dago argi aintzinako aztarnarik ez dagoelako. Baina aurrehistoriako kulturak aintzakotzat hartuz, pertsona bat hiltzen zenean animalia bat sakrifikatzen zen, gure

kasuan zaldia izan zitekeen, piztiren izpiritua pertsonarena beste mundura eraman zezan. Txalaparta hiletan erabiltzen zen instrumentua izan zitekeen. Hala ere, txalaparta instrumentua baino erritmo bat da, eta erritmo hori zaldiek ibiltzean egin ohi duten zalapartarekin batera doa. Hau Juan Antonio Urbeltzen teoria besterik ez da. Ni ados nago, baina txalapartaren munduan bakarrik teoriak bota daitezke.

Nola hurbildu zinen mundu honetara?

1976. urtean herriko apaizek zeu-



katen disko batean entzun nuen lehenengo aldiz txalapartaren soinua. Gero urte horretan Araian antolatutako euskal jaian bi txalapartari jotzen ikusi nuen. Bolada txiki batez dantza taldeko lagun batekin txalaparta joz jolasten ginen, baina berrehala joan zitzaigun burutik txalapartaren inguruko jolas hura. Benetako kontaktua orain dela hamalau urte hasi zen, Lezaio baserrian, komunan lagun batzuekin bizi nintzenean.

Zer egin zenuten Lezaon hain ospetsu bihurtzeko txalapartarien artean?

Gurekin bizi zen bat behin Astigarragara joan zen eta bertako txalapartari zahar batekin jo egin zuen. Gure erritmoa hortik dator. Pentsatu gabe txalaparta jotzeko era berezia landu genuen. Autodidaktak izan ginen, inork ez zigun irakatsi nondik nora zuzendu behar genuen. Ezer planteatu gabe taula zahar batzuetatik eboluzionatuz joan ginen eta gure estilo propioa sortu genuen.

Zertan berri duzue mundu hau?

Niri gustatu zait materialeetan ikertzea. Caballete-z eta esponjaz lagundutako txalaparta neuk sartu

nuen. Dena den, nire ustez sartu dudak berriketarik haundiena harriparta izan da. Harriez osaturiko txalaparta da. eta bere soinua ederra da benetan.

Eta erritmoan ez duzue ezer aurreratu ala?

Bai, Hernaniko txalapartarien topaketara lehen aldiz joan ginenean, guk egindako musika afrikarra zela leporatzen ziguten. Hala ere, zaharren ustez Araiaioak hoberenak ginen erritmo tradizionala nolabait mantentzen genuelako. Nahiz eta erritmo hori eboluzionatu, zaharrek ulertzen ziguten.

Zer izango zatekeen Fernando Auzmendi txalaparta ezagutu izan ez balu?

Beste era batera biziko nintzatekeen. Niretzako txalaparta bizimodua izan da. Berari esker bidaiatu eta jende asko ezagutu dut. Maila profesional batera heltzea atsegingo nuke, baina mundu honetan oso zaila da. Beharbada bikote batzuek lortu ahal izango dute, baina errealitatea da beste lan batzuetan ere aritu behar duzula.

aldizkari
berria
jaia da



eta lagun
berriak
behar ditu

**EGIN ZAITEZ
HARPIDEDUN**

Koruba indiarrak

Populazioa: 32.000 lagun

Bizitokia: Nagarahole Parke Nazionala. Tapanataka, Tamil-Nadul eta Kresala Indiako hegoaldeko estatuen artean kokaturik.

Hizkuntza: Koruba.

Byamma Jainkosarengan sinesten dute. Haien ustez Byammaren sorbaldatik jaio dira. Gaiñon-tzeko gizakiak Jainkosaren maginatik.

Tribu antolamendua dute. Buruzagia eta petrikilo (chaman) figurak dauka. Geziari

rik ez dago tribuan.

Nagaraholen bizi diren koruben tribuek BKn (Indigenen Biltzarra) ordezkariak dituzte. Buruzagiak bildu eta, petrikiloa tarfelari, lapiritekin hitz eginez erabakiak hartzen dira.

Tribu anitz daude. Fernando Janikoruba (ex Bi Biltzaileak) tribuarekin harremanetan jarri zen.

Janikorubek ezta bildu eta ehizatzen euten. Basoetatik ateratzean, te-landetan lan egin behar izan dute. Wiswalaya India-ko ONG-ak laguntzen die.

Zainetan herri honenganako interesa berpiztu bazaizu Fernando Auzmendik eskertuko lizuke. 31 45 46 telefonora dei diezaiokezu. Euskalerrian kanpaina bat antolatu nahi du, eta horretarako jendearen kolaborazioa beharrezkoa da. Araba Euskarazko egunean koruben inguruan mahai informatiboa jarriko du. Bertan herri hau argazkien bidez ezagutzeko aukera izango duzu.

Izen-deiturak _____
 Telefonoa _____
 Helbidea _____
 Kodea _____
 Herria _____
 Jaiotze data _____ Larbidea _____
Urteroko kuota: 1.500 pezeta
 Kontu zenbakia (20 zenbaki)
 Entitate _____ Sukurtsala _____ K.D. _____ Kontu zenbakia _____

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA
 PEDRO AGUA, 2. BA.
 01008 TFNOA: 22 21 53

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai, 9 • Tfnoa: 24 49 65
 Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

MIKO

izozkiak

GEU
GASTEIZ

GEU ELKARTEAREN BARREZARREKIN

Europako ekialdeko egoera soziopolitikoak aldatzearekin batera hiritar askok mendebalderako bidea hartu zuten. Gabezia soldatetatik eta bazterketa soziala ahaztu nahian etorritako horiei aukera handiegirik ez die eman mendebaldeko gizarteak. Gasteizen bertan La Calle aldizkariaren inguruan ekialdetik etorritako 60 aldizkari saltzaile baino gehiago daude, gehienak Errumaniatik etorriak.

TESTUAK: LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI ARGAZKIAK: EDORTA SANZ

eta kale gorrian

164 LAGUN KALEAN

asteizko kaleetan gero eta eskale eta saltzaile ibiltari gehiago daudela begibistakoa da, horien alboan La Calle hamabostekariko saltzaileak ere hiriko paisaiako ohiko pertsonaia bihurtu dira. 64 lagunek dute aldizkariko saltzaile karneta. Egun Gasteizen saltzaile dabiltzan gehienak errumaniar ijitoak dira, tartean italiar eta portugaldar batzuk ere badaude, baina garai batean bosniarrak izan ziren nagusi. Ekialdeko herrien egoera politiko eta ekonomikoak eragina du mendebaldeak hartzen dituen etorkinen jatorri-rako.

La Calle Fundazioak baldintza gutxi jartzen ditu karneta eman eta hamabostekaria saldu ahal izateko: inolako dirulaguntzarik ez jasotzea eta adinez nagusia izatea baino ez. Bi baldintza horiek betetzen dituztenek erosleek ordaindutako 200 pezetetatik 150 eskuratzen dituzte. Gasteizen La Calleko zenbaki bakoitzeko 1.500-2.000 ale inguru saltzen direla azaldu du Plácido

Hebrónek, hamabostekariko bolondresak.

Familia eta guzti

Errumaniatik etorritako gehienak familia guztia furgonetan sartuta iritsi dira Arabara, sei edo zazpi seme-alaba duten sendi handiak dira eta horrek egoera larriagotu egiten du, tartean haur txikiak daudelako gehienetan. "Gaur goizean bertan familia bat etorri zaigu, iritsi berria zen eta aldizkaria saldu nahi zuten jatekorik ez dutelako, emakumea hemen bertan egon da ume txikiari titia ematen". Familia handiak izateak abantailak ditu gehiago saltzeko aukera dutelako.

Garai batean udal aterpetxean legezkoak diren hiru egunak baino gehiago geratzeko baimena lortu bazuten ere, arduradunekin izandako desadostasunak kalera itzuli ditu 64 saltzaileak eta euren familiak, eta gaur Salburuan eta

La Calle saltzen

Zezen plaza osteko zelaitxoan bizi dira etorkinak.

Plácidok esan duenez, aterpetxean bizitzeko ezarritako baldintzak betetzea zaila da: "Goizeko zortzietan alde egin behar dute bertatik,

“egoera horretan haurrak dira ziurrenik galtzaile nagusiak. Eskolara joateko aukerarik ere ez dute gainera”

bazkaltzera ez badoaz ezin dira itzuli, eta arratsaldeko zortzi t'erdietan sartu behar dira berriro". Horretaz gain, elkarbizitza ere ez zen gauza erreza: "Aterpetxean gaixorik dagoen jendeak, drogamenpekoek eta, nolabait esateko, -jende zaila ere badago eta-, etorkinek aina eskubide daukaten arren, ez luke leku berean egon behar; neska gazteentzako engantxatuta daudenekin batera bizitzea batere eroso ez dela ulertzea ez da horren zaila".

Egoera horretan haurrak dira galtzaile nagusiak ziur aski, eta gainera eskolara joateko aukerarik ere ez dute. Placidok azaldu duenez, haurrek eskolak har zitzaten STEE-EILASekin plangintza bat martxan jartzeko zorian egon ziren, "baina administrazioak horrenbeste baldintza ezarri zituenez, gurasoek ezetz esan zuten. Eta ulergarria da".

Itzultzea, ametsa

Bizi baldintza horiekin ez da harritzekoa diru apur bat biltzea lortutakoan jaioterrira itzultzeko erabakia hartzea; hemen, mendebaldean, Euskal Herrian, Araban, integratu eta duintasunez bizitzeko aukerarik ematen ez baitzaie.

Gasteizen saltzaile dabiltzan errumaniarrak ikasketa eta koalkifikazio gabeko langileak dira, nekazari eremuetatik etorritakoak gehienak, eta bestelako lanen bat aurkitzea ia ezinezkoa egiten zaie: "Ez dute ia hizkuntza ezagutzen, ez dute apenas dirurik eta, gehienak, ijitoak dira; jendeak ez die oso



Etorkinak

ere
ez

begi onez begiratzen". Egoera are zailagoa da etorkin gehienak egoera ilegalean daudela kontuan izanda.

Administrazioaren jarrearekin kexu agertzen da Arabako La Calle-ko arduraduna: "Erakundeekin izandako harremanetan lortu gauza bakarra Udal aterpetxean denbora gehiago egoteko baimena izan zen, eta hori ere amaitu egin zen". Arabar

erak
dira
bereziki
harberak,
inork
ez baitte
ezer eman

erakundeetako arduradunei ez omen zaizkie europako ekialdeko herritarrak gehiegi gustatzen, "persona zailak direla diote, eta gainera ijitoak".

Etorkinak ere ez direla bereziki harberak onartu du Hebrónek: "Erabat desilusionatuta daude, inork ez die ezer eman, bizitzak ez ditu ondo tratatu eta ez daude gehiegi etsitzeko prest".

Gasteizko Udalak zerbait gehiago egin beharko lukeela uste dute La Calle-n: "Askoz gehiago egin dezake. Oso Udal

aberatsa da, etorkinak laguntzeko bitartekoak ditu". Plácido Hebrón-ek egiten duen eskaerarik premiazkoena etxebizitzarena da:

"Udalak pisu asko ditu Alde Zaharrean, etxebizitza bat lortzeko bideak erraztea badute."

intolerantzia eta hipokresia



azken urteotan jaioterritik ezezik, Madril eta Bartzelonatik ere ihesi iritsi dira La Calle-

behartuta. Euskal Herrian ez da horrelako arazo larririk egin, "noizean behin batere graziarik ez duen

ra arduragabe eta faltsuarekin kezkatuta eta erreta dago Plácido Herbon, La Calle-ko laguntzailea:

"Inor ez da horrela bizi gustuko duelako eta kontrakoa pentsatzea erabateko erokeria litzateke"

"Lehengo batean, emakume bat kexu agertu zen irratsaio batean, Zezen plaza ostean bizi diren errumaniarrek arropa guztien begi bistaren aurrean eseki egiten dutelako. Baina ez zi-

adar jotzea jasan behar izan ohi dute neska gazteek, baina erasoen berririk ez dugu izan."

tziaion otu erakundeei kexa luzatzea eta pertsona horiek kale gorrian egotea nola den posible galdetzea. Inor ez da horrela bizi gustatzen zaiolako, eta bestelakorik pentsatzea erokeria da."

Erasoekin baino, etorkinen egorearen aurrean gizarteak duen jarre-

ko sal-tzaileak Gasteizera, skin eta neonazi taldeen erasoek



MERKURIO-KADMIOMAN %0a

CEGASA PILAK INDARTSUENAK ETA EKOLOGISTENAK

CEGASA INTERNATIONAL ALCALINA

CEGASA INTERNATIONAL TOP ENERGY ALCALINE

CELAGA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 28 18 38

IPARRA
taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81 GASTEIZ

EGUNKARIA-REN I. HERRI KROSA GASTEIZ

KUOTA AURRETIK (Helduak) 1.000 Pzta-40 Libera (Gazteak) 500 Pzta-20 Libera EGUN BEREAN (Helduak) 1.200 Pzta-20 Libera (Helduak) 600 Pzta-25 Libera **IZENA EMATEKO EPEA** Maiatzak 11tik 22ra. Saburdi Jatetxean eman izena. **KORRIKALARI GUZTIEI KAMIXETA BANA OPARITUKO ZAIE**

IZEN EMATEKO TOKIAK

ARABA Gasteiz: (Gizarte Etxeak) Judimendi. Europa. Iparralde. Lakua 03. Bagare Euskal Tokia (Tel251084). **Laudio:** Olynpus Kirolak. **BIZKAIA** Bilbo: Gisasola kirolak. **NAFARROA** Iruñea: Atanasio Kirolak. **GIPUZKOA** Donostia: Apalategi Kirolak.

IBILBIDEA



ZOZKETA

Bi pertsonentzako bidaia LISBOARA



Diputación Feral de Alava Arabako Foru Aldundia



VIAJES EROSKI
BIDAIAK

kirolak

TESTUAK: ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL
ARGAZKIAK: GAZTEDI R.T.

Gaztedi Rugby Taldeak emakumezko ekipo bat du aspalditik. Aurten talde hori Euskal Ligan aritu da, eta sailkapeneko hirugarren postua bereganatu du. Liga orain aste batzuk bukatu den arren, neska gazteitarrek ez diote entrenamendua egiteari utzi, Gamarrara joan ginenenean, hiru baino ez bazeuden ere. "Ez zarete egunik onenean etorri", esan ziguten neskek, "norgehiagokarik ez izatean, lagun gutxiago etortzen gara entrenamenduetara, baina, ziur izan bihar, ostira-lean, gehiago egongo garela", gaineratuz. Horren ondorioz, argazkilariak etxerako bidea hartu behar izan zuen berriz, ez baitzen ganorazkoa hiru lagunekin argazkiak egitea.

Bitartean, entrenatzailearekin eta hiru jokalarirekin aritu ginen hizketan. Askotan gertatzen den bezalaxe, elkarrizketaren azken tartean azaldu ziren hitzik eta gairik mamitsuenak. Antza denez, oraindik batzuek rug-

Emakumezkoak eta RUGBYA bat eginik

bya gizonetzkoen kirola baino ez dela pentsatzen dute, eta inolaz ere, emakumezkoena, "lagun gehienek animatzen gaituzte, baina bakan batzuei rugby jokalaria zarela esan, eta 'hau astakiloa!' esamoldea dute ahoan". Egia esan, rugbya kirol gogorra da, "norgehiagoken ostean leher eginda zaude, eta gorputzeko atal guztiak minduta dituzu", aitortzen du entrenatzaileak, baina horrekin batera, kirol honetan ahalmen fisikoaz gain, ezinbestekoak dira teknika, arintasuna, trebetasuna... Beste kirol batzuen moduan, rugbyan ere indarrak eta adimenak bat egiten dute.

Gizonkeria nagusi

Urtero ederrak eta bi egin behar dituzte taldea aurrera eraman



ahal izateko. "Gasteizen emakume gutxi murgiltzen gara rugbyaren barnean. Etorkizunari begira, urteroko arazoa daukagu, lagun eza. Hortaz, baten batek kirola egin nahi badu, badaki non gauden, Gamarran, alegia. Hemen izugarrizko giro onarekin egingo dute topo, gu rugby taldea baino lagun taldea gara. Entrenamenduak, partiduak... garrantzitsuak dira guretzat, baina, are garrantzitsuagoa, lagunen artean egotea". Gizonkeria zabaldurik dago gizartean, eta Gaztedin ez da bestelakorik gertatzen: "Taldekotzat hartzen gaitu, baina beti gizonen atzetik goaz. Haiek alkondarak eta prakak izateko arazoak badituzte, pentsa nola gauden gu. Diru iturriak lortzea zaila denez, guk geuk lortu behar izan ditugu noizbait".

Rugby norgehiagokak ez direla zelaietan bukatzen esan ohi da, bi taldeak partiduaren ostean elkartzeko baitira beti. Topagunea zelaiaren



jokalariak
 zaldia
 ezan eta
 hau
 astakiloa
 dute
 ahoan

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisans lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu

Errementari (HERRE) 38, behea tfnoa.: 25 25 03 01013



Xabier

taberna

musika ona
eta giro
ezinhobea

Aiztogile (KUTXO), 23



ONDOKOETAN BADAGO EUSKARAZ DAKIEN LANGILERIK

UDAL-BULEGOAK ZERBITZUA	HELBIDEA	TFNOA.	
Udaletxea	Argibideak eta Erregistroa Emakumeentzako Zerbitzua Errolda Euskara Zerbitzua Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	16 11 88 16 13 45 16 11 06 16 15 22 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Eduardo Dato kalea, 11 Eduardo Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (San Prudentzio kalea)	Gizartegiuntza Hiri Hobekuntza Ingurugiroa	San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30 San Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko Ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 88
Kultura	Argibideak	Goiuri Jauregia (<i>Villa Suso</i>)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11 16 13 48
Gizarte Etxeak	Ariznabarra Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Landatxo	Ariznabarra kalea, 19 Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Urriaren Hamabiaren kalea, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g	13 36 91 16 18 80 16 17 60 16 17 40 17 17 81 16 16 82
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Bulegoa Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91

AEK-ko ikas-elkarteak aste kulturala garatuko du



AEK-ko Ikas-Elkarteak aste kulturala antolatu du maiatzaren 4tik10era. "Euskaldun berriak" gaia hartuz, kafe-tertuliak, hitzaldiak, haurrentzako antzerkia eta bideo-foruma antolatu dituzte Gasteizko Gizarte Etxeatako aretoetan garatzeko. Asteburuaz gozatu ahal izateko, maiatzaren 8an, ostirala, bertso afaria egingo dute Bluseen Elkartearen, eta larunbaterako jai bat prestatuko dute taberna batean.

Edizio hau interakioan ezin izan genuen progamazio zehatza konfirmatu. Hala ere, kartelen bidez, ekitaldien berri iragarriko dute euskaltegi guztietan eta Gasteizko hainbat tabernatan. "Egitaraua Gasteizko adin guztietako jendeari zuzenduta dago, ekitaldiak irekita daude nahi duenak parte har dezan" komentatu zuten antolatzaileek.

Aste kulturala prestatu ezezik, ikasleen talde berri honek beste ekitaldi batzuk ere aurrera eraman ditu urtean zehar. Futbolin txapelketa eta afaria izan dira "arrakastatsuenak".

Bestetik, elkarteari irudi bat emateko, logo txapelketarako deialdia AEKko euskaltegietan zabaldu zuten; "zein hautatzeko erabakia hartzea zaila da, aukezta diren lanak oso politak baitira" adierazi zuten.

15 lagunek osaturiko elkarte honek joan den urteko azaroan eman zituen lehenengo urratsak. "Gure hasierako asmoa euskaldun berri talde bat osatzea zen, baina irakasleekin hitz eginez aproposagoa ikusi genuen Ikas-Elkartearen ideia garatzea".

Urrats guztietako ikasleentzat

AEKk antolatzen dituen ekitaldietan lagunduz gain, maiatzaren 15etik 17ra egingo den AEKnapadan (Urdiainen) parte hartuko dute, eta gainera, "beheko urratsetako ikasleak hurbildu nahi ditugu Elkartera. Klasetik kanpo euskaraz egitea oso positiboa izan daiteke haientzat"

TESTUA:

**RAUL
SAEZ DE
BURUAGA**

ARGAZKIA:

**EDORTA
SANZ**

Beste herri elkartearen proposamenei irekita dago taldea. "Bileretara laguntza eske etorri zaizkigu euskararen inguruan sortzen ari diren ekimen bat edo beste. Ahal dugun neurrian laguntzen saiatuko gara".

Bestaldetik, "gure artean ez dagoen irakasle bati, Gorka Arbuluri, idazten hasi gara. Jakin badakigu berari Ikas-Elkartea sortzeko ideia buruan zebilkiola".

Lan egiteko ilusioz eta gogoz beterik, ikasleen talde honek fitxaketa berriak egin nahi ditu, "goiko urratsetan gabiltzanez, egunen batean euskaltegitik atera beharko gara". Orduan, badakizu, AEKko ikaslea bazara, igandero arratsaldeko zazpitan zita bat daukazu, Peru euskaltegian Ikas-Elkarteko kideekin.



GASTEIZKO BATZOKIAK
ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDAÑO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

21
gen gasteiz

Hiri historikoak bizi La Caixa fundazioak hurbildu digun erakusketa deigarria dugu. Besteak beste, Gasteizko alde zaharreko maketa ikusgarria da gozagai maiatzaren 3ra arte Montehermoson.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **ASIER PZ. DE KARKAMO**



Gasteiz ederra, zaharra eta txiki txikia

Hiri Historikoak Bizi. Horixe da La Caixak antolatu eta egunotan gure hiria bisitatu duen erakusketa interesgarri honen izenburua, eta baita bere asmoa ere. Aintzineko lehen asentamenduetatik gaur egungo eraikuntza burtzoragarrietara, gizaki eta *urbearen* arteko harreman estua ondo baino hobeto erakusten digu Montehermoso Kul-

turuneak jaso duen mosttrak. Kairo, Brasilia, Paris, Bartzelona, Florentzia... adibide bakar batzuk besterik ez dira, mapa, diapositiba, argazki edota multimedien goza daitezkeen hirien artean.

La Caixaren ekimena aprobeztatuz gure hiriko



Gasteizko Alde Zaharreko maketa da dudarik gabe bisitariak ahozabalik utzi dituen.

historia ezagutzeko parada ere badugu, argazkietan ikus daitekeenez, zertzeladaz beterik gainera. Adi egon, maiatzaren 3ra arte baino ez baitago zabalik.

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

**Tu Invernadero
zure lore sortak**

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

**ALISAS
TABERNA**

KUTXI 50€

PUBLIZITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durangon kokatua, beste guztiengandik gailentzen dena, bere publizitatea kulturari, euskarari, kirolari eta abarreko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxeaz ari gara. Emilio Baqué Delás jaunarekin gaude (Cafés Baqué enpresako Zuzendaria)

Galdera: Emilio, euskararen aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats...-. Zergatik hori? Euskara maite duzuelako ala errentagarritasunagatik?

Emilio: Egia esateko, hasiera batean laguntza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskarari diru laguntza ematea. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, sinpatagatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

G. Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

E. Euskarazko argitalpenen literatura sarietan eskuhartu izan dugu, IRUÑA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki saria eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburua ere argitaratu izan ditugu.

G. Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandal ugari ikusi ohi dugu...

E. Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere aritzen gara geure ahalegintxoak jartzen; baina, hori bai, beti zaletasuneko eta oinarriko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué,
Cafés BAQUEko
Zuzendaria Gerentea.

G. Saltzeko garaian Euskara asko erabiltzen duzue. Errentagarria al da?

E. Beti ez ditugu gauzak errentagarritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzera eta mezua euskaraz ematera bultzatzen gaituztenak. Azkenerako denak du bere ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldizkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi guke.

Zabaldu bedi eredu.

LARRAITZ ODRIOZOLA

kide **APAINDURA**
Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 14 41 95 GASTEIZ

gen gasteiz

Urretxuko Gaztetxeko lagunak emakumez osatutako talde baten bila zebiltzan, emakumeen egunean zuzeneko bat antolatze-ko asmoz, eta La Xeta-koak, elkarrekin jotzen hilabete gutxi zeramaten arren, kontzertua prestatzera animatu ziren. Hori horrela, Belenek kaxoian gordeta zeuzkan testuak berreskuratu, Plumek gitarra hartu, Karmentxuk bateria, eta Puyk, aldiz, baxua. Abestiak sortzeko une egokienean zirela zirudienez, ez zuten berau desaprobatzatu nahi izan. Hau gehi hau, gehi beste hau, gehi bertsioren bat edo beste, berdin hamairu abesti, eta kanta guztien artean *Soltera Para Toda la Vida* klasikoa, berehala taldearen himno bilakatu zena. Ondoan Sex Pistols, La Polla eta Vomito taldeen bertsiak, eta La Xetakoek euren zenbait kanta. Gaurregun taldea aldatuta dugu, Mamenek eta Martak, Puy eta Karmentxuk utzitako hutsuneak bete dituzte eta. La Xeta Paxote ez da gelditzen.

Eta istorio hau hasi zen Urretxuko Gaztetxean kontzertu bat gauzatu zenuten egun hartan.

Bai, entseietan oso denbora gutxi ematen genuen arren, lehenbiziko kontzertu hartan jasotako erantzuna bikaina izan zen. Bukatutakoan taldeki-de guztiok sentzazio berdina genuen: "bai, bai, aurrera jo behar dugu". Bai, entzuleen erantzunak animatu gintuen, emakumezkoen harrera batez ere. "Aupa tias!" neska baten ahotsaz entzuteak emakumeok soilik uler dezakegun garrantzi izugarria dauka.

Urretxuko kontzertua eta gero, zer?

Gau magiko hartan, etxerako bidean, Etxarrin gelditu eta hantxe egiten ari zen kontzertu batean jo genuen. Jendea flipatuta zegoen, are gehiago jo behar zuten taldeak, eskenatokira abisatu gabe igo ginen eta. Kartelean ez agertzeak bost axola, "goian" baikeunden. Edonola eta edonon jotzeko irrikitan ginen. Bestetik, hemen Gasteizen jende

Lau neska, lau punkzale, energia eta aldarte ona lau haizetara zabaltzen dituzten lau lagun, entseiu eskasak gogo handiz ordezkatuz, iazko martxoaren 8an estraineko zuzeneko egin zuen taldea: La Xeta Paxote. Entzuleen harrera bikainak lagundu zien erabakia hartzen: taldeak aurrera jo behar zuen.

La Xeta Paxote

Darraigu
80.eko
Euskal
Herriko
punk
taldeek
zabaltu
zuten
bideari

askok ezagutzen gaituenez, kontzertu bat ematea eskaini ziguten. Lehenengo Gorka eta Nerea atxilotuen aldekoa izan zen. Ez dugu inoiz kontzertu hori ahaztuko, ekipo izugarri onarekin jo genuen eta, Soziedad Alkoholika-renarekin hain zuten. Uf!, txundituta ginen, bai. Orain gehiago entseiatzen saiatzen gara, eta horrek ahalegin handiak egitera behartzen gaitu, La Xetakideok mundu desberdinetatik gatzoz eta. Oso lanpeturik gabiltza, oso. Badakizue, bizi nahi baduzu ezin diozu beharrari utzi.

TESTUA:
TXABI
ARNAL
GIL

ARGAZKIAK:
EDORTA
SANZ

Madriken behin...

Behin deitu ziguten Madrileko etxe okupatu batean jotzeko, Laboratoriosen, hain zuten ere. Bidaia banandurik egin genuen, zeren garai hartako baxujoleak (Puy) berandu arte lan egin behar baitzuen. Eta Madrileran heldu zela Puy galdu egin zen, eta beste hirurok atera behar izan genuen eskenatokira, baxurik gabe. Hala eta guztiz ere, kontzertu bikaina egin genuen. Hantxe egiaztatu ahal izan genuen sentimenduz egindako gauzak badabilzala, jendeak gogoko duela musika freskoa en-

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
EGUNEKO MENUA
ETA KARTA
Aiztogile (KUTXI), 33 tfnoa. 25 02 39

ONGI
ETORRI
KUTXI 103
GASTEIZ

Xurru

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ

tzutea. Gainera, ba al dakizue gauza bat? Gasteiztik kanpoko harrera hemengoa baino beroagoa izan ohi dugu. Ezagutzen ez gaituzten lekuetan jendea gehiago hurbiltzen zaigula antzematen dugu.

Taldean antzerkilariak egoteak isladate du taldearen zuzenekoetan eta musikan?

Bai, askotan mozorrotuta agertzen gara eskenatokian; langileen jantziak batzuetan, eta emaztegaien beloak besteetan. Bestaldetik, gure zuzenekoetan bolondres bati burua mozten diogu eta taldearen izena antzerkiaren bidez azaltzen dugu. Oro har, abestiak irudiztatzen ditugula esan daiteke. Besaulki baten gainean eserita abestu ohi dugu, telebistak sortzen duen kontrola salatu asmoz. A, bai, jakina! Spice Girls-en parodia bat egiten dugu. Hori dugu, egun, kontzertuak zabalitzen dituen abestia, eta horren bitartez inposatutako ereduak eta neska gazteen sentimenduekin jokatzu egiten ari den negozioa agertu nahi ditugu.

Eta musikari dagokionez, La Xeta Paxote punk-rock laukote bat dela esan dezakegu?

Bai, darraigu 80. hamarkadako Euskal Herriko punk taldeek zabalduetako bideari. Gustuko dugu garai hartako musika; La Pollak edota RIPek egindakoa, adibidez. Behin esan zuten gutaz 2000. urteko punk talde bat garela. Seguraski txantxetan ari ziren. Dena den, guk badakigu zertan ari garen: betiko *punk rock-a*, *ska* tanta ugariz nahastua, hain zuzen.

Emakumez osaturiko talde bat sortzea alde aurretik pentsatutako asmoa zenuten?

Bai, eta gainera emakumez soilik osatutako taldeak aldarrikatzen ditugu. Gu bezalako oso talde gutxi aritzen da *punk rock*ean. Bakarlariak dauden arren, ez dute zerikusirik handirik guk egiten dugunarekin. Dena den, gero eta neska gehiago hurbiltzen zaizkigu talde bat egun dutela esanez, eta horrek

pozten gaitu, noski! Denok neskak izatea jendeak gogoratzten duen La Xeta- ren ezaugarri bakarra izan da orain arte, baina hori gaingitu behar da. Jendeak neskak izatearren soilik ez du bereziak garenik pentsatu behar, baizik eta gure abestien bidez indarra eta amorrua bota egiten ditugulako ere. Bestetik, emakumezkoon energia gizonetzkoena bezalako ez dela aipatu nahi dugu, hauek biolentoagoak dira eta.

Eta jarraitzaileak emakumezkoak baino ez al dituzte?

Ez, denetarik daugu. Hala ere, kontzertuak gauzatzeko deitzen dituzten neskak izan ohi dira. Egia esan, neskak erakartzen ditugu gehienbat. Gure agerraldietan arazoak ahazten dituzte, aske dabilta, oso aske, eta sarri askotan esaldiren bat ematen digute eskenatokitik aldarrika dezagun. Gizonetzkoak askoz kritikoagoak direla ematen du, egiten duguna zehatz-mehatz aztertzen dute. Neskek bai kontzertuetan, zein kontzertuen ostean aurrera jarraitzen animatzen gaituzte. *Aupa tias!* entzutea oso balio- garria da guretzat. Dena den, ezin da beti berdin gertatzen denik esan, zeren gizonetzkoen aldetik ere batzuetan laguntza eta erantzun ona jasotzen baititugu.

Zuen hitzek taldearen filosofiarekin bat egiten al dute?

Bai, zalantzarik gabe. Gure testuak arduratuta gauzaten gaiez mintzatzen dira. Okupak, etxebizitzarik ez dute-

Harremanetarako
telefonoak:
919 31 25 09
(Plum)
919 94 63 90
(Belen)

nak, faxismoaren kontrako borrokalaria, eta presoak izaten dira gure abestien protagonista nagusiak. Bestetik tortura salatzen dugu, feminismoa aldarrikatzen dugu, alkoholaz hitz egiten dugu, bortxaketaz eta hauexek defendatzen dituzten legez, senarrek nazkatuta dauden emakumez, eta baita zapalkuntzaren aurka erreakzionatzen duen guztiaz ere. Adibide bat: Sex Pistols-en *Good Save the Queen* bertsiionatzen dugu, guk asmatu futbolaz mintzatzen den hitzak abestuz. Badakizue; futbola eta gizonak, arratsalderoko

telebistako nobela larrosak eta emakumeak, baloia- ren negozioa, eta futbolaren atzean izkututzen den fanatismoa.

Daukzuen esperientzia laguntza handia izan al da taldea berehala ibiltzen hasteko?

Esperientziak lagundu digu, eta baita gure kope- tak ere. Antzerki- an edo beste mu- sika talderen bate- an aritu izanak bidea leundu di- gu, baina, kontuz! Lehengoa eta ora- ingoa ez dira ego- era berdinak. Antzerkian edo musikan jardutzea ez da gauza bera. Guk uste egiten ari garen hau erabat berria dela. Nahiz eta eskenatoki batera milaka aldiz atera izan, urdaila estutzen zaigu jendearen aurrean gauden guztietan. Ezperientziak ez digu inoiz ezabatuko hasi aurretiko nerbioak.

Egia esan, betiko rock-aren lengoaiak eta irudiak (rock gogorrarena, batez ere), oso gutxitan jo izan du emaku- meen alde.



Zuzenean jotzen

Arte Ederrei buruzko Sailik zabalena ezazu ezazu

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak	pintzelak	lientzoak
oleoak	ikatzkiloak	olioak
akuarela	kaballetreak	etabar

Arriaga euskalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU PAPER- GINTZA, INFORMATIKA ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12 Bildegia: Urtiasolo 2 - 2. Pabilloia 23 47 00 Fax: 23 49 14

IZTABERKARRA

BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 43 00 73



Jendeak gogoko

Badirudi betiko topikoak gaintzen ari gara. Badakizue, neska ederrak eta guzti horiek. Lengoiari dagokionez, gehiago zaindu beharko genukeelakoan gaude. Askotan, pentsatu gabe esan arren, zenbait esaera eta hitz matxista erabiltzen ditugu. Mesprezuzko izen eta adjektiboak femeninoak izaten dira, eta hori ezin daiteke onartu, gehien bat, gaztelera hizkuntza aberatsa izanda, gauzak esateko mila era ezberdin ditugula kontuan hartzen badugu.

Laster entzun ahal izango dugu La Xeta Paxoteren lehenengo grabazioa?

Orain, poliki-poliki, etxeko maketa bat grabatzen ari gara lagun batenean. Dena den, grabazio horren helburua ez da kaleratzea, baizik eta geuk geurea entzutea eta hobetzen saiatzea. Oraindik ez dugu estudio batean grabatzea erabaki; alde batetik, inork ez digulako orain arte proposatu, eta bestetik, La Xeta Paxote zuzeneko talde bat garelako. Taldearen mamia agerraldietan dagoela uste dugu. Grabatzea atsegin izango genukeen? Jakina! Estudioan zerbait egiteak esperientzia ederra izan behar du, eta disko bat grabatzeak, berriz, trofeo bat, musikari guztiok nahi dugun saria. Gainera disko batek taldearen musika eta zenbait ate zabal ditzake, ezta?



gaurkoak eta betikoak

rock'n'rollaren historia formato berrian



Aitortu nahi dugu: **A**maiteminduta gaude M-Clan rock-seikote murtziarrarekin euren lehenengoko diskoa entzun genuenetik, jarraian aurkeztu behar dizuegun *Un Buen Momento* izeneko lan hau gure belarrietara heldu zenetik, hain zuzen ere.

Zergatik? Galdera hau erantzuteko aukera ugari ditugun arren, bakar bat erabiliko dugu: rockzaleak garelako. Eta horixe da disko honetan entzun ahal izango duzuen; maila altueneko *rock and rolla*, lehendabizikotik azkeneraino abesti bikainak guztiak. Batzuk arinak, beste batzuk, berriz, motelagoak, eta den-denak ederrak.

70 hamarkadako rock-iturrian ura edan ondoren, lezioa ondo ikasi eta gero, orain hiru urte azterketaren unea heldu zitzaizen M-Clankideei. Eta gaintu zuten, eta nola gainera! *Un Buen Momento* lehenengoz entzutekoan ez duzue batere zaila izango izen miti-

IZENBURUA: UN BUEN MOMENTO

TALDEA: M-CLAN

DISKETXEA: DRG

URTEA: 1995

ko asko gogoratzea: Alman Brothers Band, Led Zeppelin, The Faces, The Rolling Stones eta Lynyrd Sky-nyrd, besteak beste. Hala ere, azkenengo abestia entzuteari uzten diozuenen izen bakarra izango duzu buruan: M-Clan.

Gitarrak, baxua, pianoa eta ahotsa, besterik ez. Bakoitza bere aldetik, lana ederki betez; denak batera, benetazko talde bat osatuz. *Se Calienta* blues geltokitik atera-tzen da rock-erako bidea ibiltzeko asmoz. *En Mis Manos*, *Un Buen Momento*, *Volando Alto* eta *Donde El Rio Hierve* eroso jarrita ditugu rockaren etxean. *Perdido En La Ciudad* abestiaren bidez lehen aipatutako izen mitikoei aurrez aurre begiratzen diete murtziarrek lotsatu beharrik gabe. *Dentro de la Esfera*-k Estatu Batuetako hegoaldera eramaten gaitu. Eta azkenik, *Hermana*, *Ron Vudu* eta *Miro Atras* abestiek adjektibo berdinari heltzen diote: ederrak.

Egiatzatu al duzue lehenengo esaldian adierazi duguna?

TXABI ARNAL GIL

IZENBURUA: BADA HIRI GORRI BAT

TALDEA: LORELEI

DISKETXEA: GAZTELUPEKO HOTSAK

URTEA: 1997



Pop musikaren doinuetan murgiltzen gara *Bada Hiri Gorri Bat* diskoaren lehendabiziko konpasetik aurrera. Eibarretik datorren laukoteak azkar, oso azkar lortu du musika gordinagoak eta gogorragoak nagusi diren gaur egungo euskal musikagintzaren esparruan sartzea.

Asier Serrano ahots nagusian, Mikel Gorosabel *Norton* kitarran eta bigarren ahotsan, Mikel Irisarri baxuan eta Jon Maza baterian, poeta gaztea eta abestien hitzen egilea lehendabizikoa, trash-metal, punka eta revel-rock musika taldeetatik datozen musikariak gainontzeko hirurak, laurek osatzen dute Lorelei.

Diskoa ireki eta lanari izena ematen dion kantatik *Hiri Gorri Honetan* abestiraino bat egiten dute egoera erreal eta ametsak doinu eta letren bitartez, eta nagusi den pop-rokari lagunduz ageri dira reggae eta folk doinuak. Erritmikoki elkarlotuta dauden hamar kanta dira, baina era berean euren arteko haustura dutenak. Eta abesti hauek guztiak uztartuz lortutako istorio bakarra, emakumeari zuzendutako poesia-musika lana, haren bizipenak eta sortzen dituen desio izkutuak. Azken batean gizarteak baztertutako emakumeari egindako omenaldia, Serrano eta Lorelei heriotzean abestian Aranbarriren hitzen bitartez. Letra sinpleak (izkutuko bigarren zentzu-arekin beti) eta erritmo popero eta eranskorak, horixe da Lorelei eskaintzen diguna.

AINHARA Z. A.

geu gasteiz

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR

Uetzal

HegoAmerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea • S. Frantzisko
kantoiaeren ertzean Tfnoa: 25 03 52

AGENDA

LEHIAKETAK

Sagitario Literatur Saria.

Europako mendebaldera edo urrunago bidaiatu dutenentzat literatur saria antolatuta du Aramaioko Udak. Bidaiei beren oporraldia izango dute kontagai. 100.000 pezetako sari bana dago euskara zein gaztelarazko lanik hoberenentzat.

Aramaioko Udaletxea. 01160

Aramaio. [945 44 50 16]

Felix Ugarte Itzulpen VI.

Itzulpen Lehiaketa. Filologia, geografia nahiz Historiaren inguruko testuen itzulpen tekniko argitaragabeentzako deialdia da, edozein hizkuntzatatik testuak euskaratu nahi dituztenentzat. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 15ean amaitzen da.

Izardui Komandantearen kalea, 2.

1612 Posta Kutxa. 01001 Gasteiz.

[945 18 33 48]

San Prudentzio XXIX Argazki

Lehiaketa. Arabako Argazki Elkarteak antolatua eta Arabako Foru Aldundiko Kultura Saila eta Euskadiko Kutxabagunduta, Araban ospatzen den argazkilaritza lehiaketarik garrantzitsuenak da. Gai eta formatu libreak. Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaitzen da.

Arabako Argazki Elkarteak

573 Posta Kutxatila 01008 Gasteiz

KULTUR KANPUS

musika. (pabilioian)

13AN, 12:15ETAN. TRAVELIN DOGS

16AN, 12:30ETAN. GANBARA

antzerkia. (pabilioian)

8AN, 12:15ETAN. EL BLUES DEL ALBORNOZ, TIRRINKI-TARRANKA-rekin

20AN, 12:15ETAN. EMBALADAS, LA TIRILLI taldearekin

erakusketak. (pabilioian)

TROTATITEREAK, Setik 18ra

CAMPUSEKO II. ARTE LEHIAKETA,

21etik aurrera

zinea. (araba aretoan)

FRANKENSTEIN ZIKLOA, 11, 18 eta

20an, 19:30etan



*Maiatzaren 18an
Senperen*

zuen informazioen zai gaud.

Bidalai postaz edota faxez

honako helbidera:

Geu Gasteiz

Pedro Asua kalea, 2. 3.a

945 22 21 53

MUSIKA

Arabako Helduen Kantu

Txapelketa. Maiatzaren 9an Araian ospatuko da aurtengo Arabako Helduen Kantu Txapelketa. Ekitaldi honek herrialdeko euskal kantagintzarako zaletasuna berpiztea da. Partehartzeko edo beste zerbaiterako informazio gehiago nahi duenak Bagare Euskal tokira dei dezake.

Bagare Euskal Tokia.

Aitzogile kalea, 62. [25 10 84]

DIAPOSITIBAK

Mendia eta bidaiak.

Bagare Euskal Tokiak bere 10. urteurrena ospatzeko antolatuta dituen ekintzen artean 3 egunetan zehar (hilaren 11, 13 eta 15an) Mendia eta bidaiak izeneko diapositiba emanaldi eta hizaldi sorta eskeniko dizitugu. Hizlariak Amaia Elosegi, Ruben Egia eta Maribel Diaz, eta Alberto Zerian izango dira.

Bagare Euskal Tokia

Aitzogile kalea, 62

945 25 10 84

IBILALDIAK

A.N.I.

Hiru dira maiatzan Arabako Natur Institutuak antolatuko dituen ekitaldiak. Horietak bi Gasteizen bertan burutuko dira, hilaren 3an igandean eta 30ean larunbatean, hiriko fauna eta flora gozatzeko ibilbide gidatu paregabeak. Bestalde, maiatzaren 9an Murgia diapiroa bisitatzeko ibilbidea ere badagoenez, aurrerik hainbat datu tektoniko ezagutzeko, hitzaldia emango da hilaren 8an, ostirala.

Arabako Natur Institutua

Pedro Asua kalea, 2 - 3a.

Telefono eta faxa: 945 24 66 06

MAIATZAKO gomendapena

Bertsosaldia 98.

Gasteizko Bertso Eskolak Bertsosaldia ospatuko du hile honen bukaerarako. Hona hemen egitaraua:

Maiatzak 19: Bertso saioa.

Fakultatean, Euskal Herriko bertsolari gasteekin.

Maiatzak 20: Emakume bertsolarien

historia hitzaldia. 20:00etan Gouri

Jauregian (Villa Suso). Ondoren bertso

saioa.

Maiatzak 21: Txapelketa XXI. mende-

an hitzaldia. Hizlariak: Jon Sarasua,

Andoni Egaña, Xabier Amuriza.

20:00etan Gouri Jauregian.

Maiatzak 22: Antzerkia bertsoan.

17:00etan Beñat Etxepare Antzokian.

Maiatzak 24: Bertso saio nahastua,

herrialde ezberdinetako bertsolariekin:

Zigor Enbeita, Unai Iturriaga, Jokin

Sorozabal...

Maiatzak 27: Bitoitza Kmatru taldearen

kantaldia. 20:00etan Gouri

Jauregian.

Maiatzak 28: Lore joko bertso saioa.

Asier Otamendi, Oihane Enbeita,

Oihane Perea eta Jexux Mari Irazu.

BIDEOA

Bideo Jaialdia.

Gasteizko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailek ekainaren 29tik uztailaren 4ra bitartean egingo den Bideo Jaialdirako deialdia egin du. Izenez mate orria maiatzaren 19a baino lehen bidali behar da da Montehermoso Kulturunera. Izan emate orriak Gasteizko edozein Gizarte Etxeetan eskura daitezke.

[945 16 12 68, 945 16 18 19 eta

945 16 13 39]

www.vitoria-gasteiz.org/fvideo/



EUSKAL MUSIKA

Helduen Kantu Txapelketa 98. Bagare Euskal Tokiak bere 10. urteurrenaren antolatuta eta Araba Euskarazeko egitarauaren barne

Araian. Maiatzak 9. (Bagare Euskal Tokia 25 10 84)

erakusketak

DUKESSA.

Maiatzaren 14ra bitartean Vera Fajardo margolariaren kalean dagoen Dukessa arte galerian aritzen diren hainbat artisten azkeneko lanak gozagai daude. Batez ere margolanak dira.

KORDOI ETXEA.

Oraindik zabalik darrak Kordoi Etxeak eguzki asmakizunen inguruan jasotzen duen mostra. Bertan eguzki indarra aprobetxatzeko hainbat etxeko jostailu edo asmakizun bitxi aurki daitezke. Oso-osoa interesgarria.

VITAL KUTXA FUNDAZIOA.

Baskonia Saskibaloia Taldeak ACBn egin dituen 25 urteak direla eta burutzen diren ekitaldien artean, erakusketa dago Vital Kutxa Fundazioaren Aretoan, bai Baskonia, bai Saskibaloia-aren inguruan.

MONTEHERMOSO KULTURUNEA.

1968tik 1995ra bitartean egindako eta Gasteizko Udaltzaren Artxibategiarenak diren argazkiak erakusgai dira apirilaren 24tik maiatzaren 24ra. Orotara hiriko 80 argazki dira, serie baten 3. mostra osatzen dutenak.

27
geu gasteiz

piti pata

Azkar, azkar...banoa!

Haxe da mundura etortzeko lehia eta premia! Ekainek bere amari abisuak eman eta ordu eskas batean negarrak jota zebilen. Hain izan zen azkar guztia, ezen bere aitari ez baitzion denborarik eman jaiotze gelara sartzeko, bera prest eta ilusioz ibili arren. Batek daki!, beharbada hurrengo batean zorte hobea izango du.

Dena dela, presaka eta guzti, amari, aurreneko sabelaldia izanik, esperientzia liluragarria iruditu zitzaion. Orain oso urrun geratzen da hau dena, Ekainek urte bat eta bi hilabete baititu, eta oraindano ez die bere gurasoei gau txarrik eman, haur txintxo eta lasaia da eta.

Hala ere, amaren kezkek ez datoz Ekainek negar eta bihurkeriak egiteagatik, baizik eta noizbait aita, u-mea zaindu beharrean, harat-honat ezkutatzen delako.



A ze parea!

Bi mutiltxo hauek, Alex eta Iker, Euskaraokearen zale haundiak dira. Durana ikastolatik atera eta ziztu bizian abiatzen dira etxera Euskaraoke entzutera, sarritan saioa garrasika jarraituz.

Ez pentsa hain ospetsuak diren Dragoi Bola marrazkiak ikusten ez dituztenik. Dena den, abeste kontuak nahiago dituzte, eta beharbada etorkizun hurbilean musika bikote goraiatu baten aurrean izango gara.

Oso lagun bikote ona osatzen dute eta Gasteizko parkeetatik elkarrekin jolasteaz gain, klasean mahaikideak dira. Biak maixuak dira, ez futboleak, baizik eta "zapatakadan" jolasten duten bakoitzean, eta horrez gain Alexek etxean saski txiki batean bere lehenengo saskiraketak egin ohi ditu.

Haiek diotenez ikastolan bere klaseko neska-mutil guztiak tirabiran dabilta, maskota gisa maiztagarri dituzten, Benita behia eta Katalina dordokaren atzetik.

Ipuina:

ZUHAITZAK ETA MAMUA BASOAN

Bazen behin mamu bat basorantz abiatu egin zena. Zuhaitz guztiak beldurtuta zeuden. Egunak joan egunak etorri, denbora luze egon zen mamua basoan.

Egun batean mamuak zuhaitz bat ezagutu eta lagun hartu zuen. Orduan,

zuhaitz horrek beste zuhaitzekin hitz egin zuen, mamu hori ez zela gaiztoa esanez; ona

zela, polita, ez zela bihurria, berarekin hizketan egon zelako.

Ondoren, oihaneko zuhaitz guztiak berarekin hitz egiten hasi ziren.

Eta horrela, ordutik aurrera, den-denak, lagunak izan ziren betiko.

Janire, 12 urte.
Barrutia Ikastola.



HAUNDITZEN, 6-12 urte

URTE BATZUK GEROAGO, 2-5 urte

JAIOBERRIAK



ba al zenekien



Hans C. Andersen

Hans Christian Andersen dudarik gabe inoiz haurrentzako literaturak eman duen idazlerik ospetsuena da. Danimarkako Odensen jaio zen 1805 urtean eta 70 urte berandua go hil. XIX. mendeko autorea izan zen, beraz, Andersen.

Ipuin egile honek txiki-txikitik burua fantasiarekin beteri eduki zuen. Hori zela eta maiz beste haurren

bromen gaia bihurtzen zen Andersen.

14 urte zituenean Kopenhage-ra joan zen ikasketak egitera, opera kantaria izan nahi baitzuen. Hala ere, han besteen irainak jaso behar izan zituen, Danimarkako erregeak lagundu bazion ere.

23 urtekin ikasketak amaitu zituen eta orduan hasi zen bere elaberri eta antzerki lanak idazten.



Txaloak, begiak...

Gazte hauek, Alvaro eta Jorge,

du ten kezka garrantzitsuena zinemarako sarrerak hain garestiak izatea da. Ozenki eskatzen dute gazteontzako laguntza, bere poltsikoak xurgatuz hilero bizpahiru aldiz hurbiltzen baitira filmak gozatzera (patrikak eman dezakeenaren arabera, noski!). Ah! eta bere iritzia jakinarazi ziguten; esate baterako, hainbeste sari irabazi duen pelikulari buruz, ez dela hainbesterako aipatu dute.

Asteburuko saltsa, etxe askotan bezala, bueltatzeko ordua da, biok gurasoekin tira-bira ibili ohi dira, bereziki urtebetetzeren bat ospatu behar dutenean.

Beraien ustez momentu honetan norbaitek txaloren bat merezi bado, hori Alaves futbol taldea da. Jorgek aitortu zigun bezala, orain zale amorratua da, baina urte txarretan ahaztuxeago zeukan. Alvaro orain dela urte pare batzuk Lakuako bizi zen, horrexegatik tranbia gora eta beherako iskanbila sortzen denean, bera alde dagoela esaten du, Lakuako biztanleekiko elkartasuna adierazi nahian. Jorgek, berriz, ez du honela ikusten, beharrezkoa ez dela adieraziz.



maria castro



itzaso mar



streila

nerea triviño



oihane aberasturi



Datorren hilabeteotan zure marrazkia argitaratua ikusi nahi baduzue bidaliguzue honako helbidera:

Geu Gasteiz aldizkaria Pedro Asua kalea 2. ja.

GAZTETXOAK, 13-17 urte



30 urterekin *Inprovisatore* (Inprobisatzailea) nobela argitaratu zuen. Liburu horri esker Andersen mundu osoan ezaguna bilakatu zen.

1835 urtean ere, lehen ipuin bilduma argitaratu zuen. Guztira 164 ipuin idatzi

zituena Andersenek. Haurrei zuzenduak izanik ere, istorioen atzean izkutatzen zen zentzu moralak helduentzako erakargarriak egiten zituen.

Maitagarrien ipuinak bildumetan denok askotan entzun eta irakurri ditugun ipuinetako asko agertzen dira. Horien guztien artean, noski, *Ahatetxo itsusia* dago.

DROGAK ETA MUGIMENDU ALTERNATIBOAK

Edurne Begiristain / bertsolaria

Drogei guztiz kaltegarria den itxura iraultzailea ematen ari zaie. Sistemak, drogak txarrak direla esan, eta guk ustezko *desobedientzia* moduan drogak kontsumitzeari ekiten diogu. Askotan, drogak eta mugimendu alternatiboak berdintzearen akatsean erortzen gara, euren izaera alternatibo hori benetan non dagoen aztertu gabe.

Drogen aurka instituzioek buruturiko edozein iharduera hipokresia hutsa dela ohartzeko ez dugu gehiegi hausnartu behar. Irudi faltsua emateko aurrera darabaten joku zikina baino ez da eurena, beraien interes politiko-ekonomikoak defendatzeagatik darraiten joku zikina, alegia. Izan ere, gobernuak *Di no a la droga* bezalako iragarkiak ordaintzen dituen aldi berean, Europa Batasunaren nekazaritzarako diru laguntzen % 9,8 alkohola eta tabakoa finantziatzeko erabiltzen du. Era honetan, tabakoaren monopolioa mantentzeaz gain, droga hauen gaineko zergen bidez dirutza handia lortzen du.

Sistemari jendeak droga legalak zein ilegalak hartzea komeni zaio. Autogestionatuak direnek ere negozio handia sortzen dute, kontzientziak indargabetu eta aurkaketak saihestea lortzen baitute. Honen adibide garbia da kartzeletan drogekin dagoen egoera. Botereak, betidanik, presoek sortutako salaketa eta elkartasunerako taldeak suntsitzeko erabili du droga. Kartzela, gure gizartearen ispilua baino ez dela kontuan hartzen badugu (gure mixeriak haundituta isladatzen dituen ispilua, alegia), kalean drogekin eginkizun bera betetzen dutela ohartuko gara: elkartasun eza, giza mugimenduen makaltzea eta errepresioaren gehikuntza zuritzea, besteak beste.

Orain arte aipatutako arrazoiak drogak arbuizatzeko argudio nahikoak badira ere, ekologia eta gizarte alorrean drogekin sortzen dituzten kalteek garrantzi itzela dutela ezin ahaz daiteke. Arrazoi ekologikoei dagokionez, oihana tropikalen etsai haundienetarikoa bat droga dela esan beharra dago. Alde batetik, ilegalak izanik,

polizia eta ejerzitua nahasteko, aldiro ereintza lekuz aldatu beharrak oihanari lur berriak lapurtzea dakarrelako. Bestetik, kokaina eta beste droga batzuk lantzeko beharrezkoak diren produktu kimikoak normalean ibaietara botatzen direlako.

Gizarteari dagokionez, drogek *ihesaldia* errazten dutela aipatu behar da, hauen bidez errealtate zapuzti batekin artifizialki ihes egitea ahalbidetzen baitute. Honela, drogek errealtateari eman behar zaion arreta gutxitzen dute eta honekin batera, txarto dagoena aldatzeko gogoia ere. Eta hau gutxi balitz ere, drogen efektua agortzen denean, aldi berean, eragindako sasi-ongizatea ere bukatzen da, pertsonarengan jaistaldi gogorrrak sortaraziz.

Argi asko dago, droga ez kontsumitzeak arazoei aurre egiteko geure gaitasunaren %100 erabiltzea ahalbidertzen digula, eta halaber, sistemarekiko askeago eta buruaskiagoak izaten laguntzen gaituela. Izan ere, edozein droga motaren kontsumoa sistema indartzeko baliozkoa da, eta beraz, *Di no a la droga* bezalako gobernuaren iharduera iragarriak ezin ditugu sinetsi.

Azken batean, norberak arduratsuki jokatu beharko luke berarentzat balio duen alternatiba bila dezan. Muga batzuen arteko drogen erabileraz hitz egin beharrean, drogarik gabe bizitzeaz eta gure harremanen gihartzeaz


mintzatu beharko genukeela uste dut. Sistema insolidario honek sarritan sortarazten dizkigun ezintasun eta frustazio sentimenduak gainditzeko behar dugun indarra ez genuke drogetan bilatu behar, jendearekiko komunikazioan eta gure utopiak gauzatzeko saiakeran baizik.

Era berean, gazteok oro har, drogei aitortu diegun izaera alternatiboa alde batera uztea beharrezkoa da. Geure burua antikapitalista eta iraultzailetzat badugu, drogak mesprezatzea da gure ideiekiko jarrerarik koherenteena; zentzu honetan ematen ditugun pausuek askeago eta zoriontsuago izaten lagunduko baitigute. v



Ardatz itzulpen eta euskaraz bitzuzak

Arana kalea, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17
☎ 27 07 90
GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 ETA 3
☎ 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 ETA 3
☎ 26 78 97



JOSEBA

Paraguay merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

Floridako altxorra !

35

adaka
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

ZIBERTXEROKI



geu gasteiz

FILMERIK-FILME, KONTU-KONTARI

Elbira Elejalde / zinema zalea

atzuetan, film bat ikustera joan aurretik nahitaez hari buruzko informazio ugari jasotzen dugu. Telebistan eszena harrigarrienak agertzen dira eta esatariek edo kritikoeek filmari buruzko hainbat iritzi eta ikuspuntu partikular botatzen dituzte, sarri askotan argumentua gehiegi azalduz. Honekin batera, aurrekontu handiko film amerikarren iragarki pilo agertzen zaizkigu, *historian burutu den proiekturik garestiena* edo antzerako argudio baten bidez jendea erakarriz. *Making offa* (nola egin zen) ikusteko aukera ere badugu eta, film bera ikusten ari zaren momentuan jakin badakizu eszena esanguratsu horretan zer agertuko den. Hori guztia kontuan hartuz, nahiz eta saiatu, askotan ahal den gutxien entzun eta ikustea zaila bilakatzen da.

Azkenaldi honetan, badirudi horrelako filmeez baino ez dutela irauten aretoetako programazioetan. Gainerakoak, aldiz, suposatzen dut arazo komertzialak direla eta, ia konturatu gabe desagertzen zaizkigu kartelarik. Batzuetan, *Jackie Brown*-en kasuan bezala, iraupen luzeagatik, badirudi programatzaileei zaila suertatzen zaiela besteen artean egokitzea.

Horregatik, zinemara joan aurretik kontuak atera behar izaten ditugu: noiztik dauden ikusi nahi ditugun filmak, zein zine aretotan (Guridietan badago, beharbada ondoren Samaniegora eraman dezakete, Samaniegon badago azkar ibili beharko dugu), zein den komertzialena (azkenerako uzteko), edo horrelako gorabeherak kontuan hartu beharko ditugu, momentu horretan zein nahiago dugun ikusi baino. Halaber, adi egon beharko dugu aspaldian zinemaldi batean aurkeztu zen filme interesgarria, itzaroten ari garen hura, konturatu gabe jar eta ken ez dezaten. Horien artean, adibide gisa, Donostian Epailearen saria irabazi zuen *I went down* film irlandarra, edota gure

artean behin baino gehiagotan izan den John Sayles-en lanak, esate baterako, azkenekoa, *Hombres armados*.

Areto komertzialetik kanpo, zikloei esker filmak berrikusteko edota zuzendari baten lan osoa ikusteko aukera izan ohi dugu, esaterako, hil honetan Luis Buñuelen film batzuez gozatu gara. Eskertzekoa bada oso posibilitate hau, badira hainbat eragozpen. Alde batetik, bideo emanaldiak aurkitzea zeluloidearen orde, eta bestetik, dohainik izateagatik edo, arreta eskasa duen jubilatua alboan jarri eta bere azalpen guztiak filme osoan zehar entzutera behartuta egotea. **Francis Ford Coppola eta "Legítima defensa"**

Gaur egungo filme garrantzitsuenetarikoen zuzendari dugu Francis Ford Coppola. *La ley de la calle*, *El padrino*, *La conversación*, eta hainbat filme zuzentzeaz gain, *Amerikan Zoetrope* sortu zuen estudio handien eskema tradizionalekin hausteko asmoz. Porrot ekonomiko baten ondoren, enkarguzko filmak egin behar izan ditu eta, gezurra badirudi ere, filme pertsonalak gauzatzeko aukera baten zain dago sortzaile handi hau.

Zuzendari honen azken lana *Legítima defensa* enkargua da, eta oraingo honetan, John Grisham idazle ospetsuaren liburua-ren formula (*El informe pelicano*, *La Tapadera...*) aukeratu du: pertsonaia onak, argumentu sendoa, biolentzia gehiegirik ez, eta ikusleari mundu berri bat (abokatuen korporazioena) aurkezten zaion horietariko.

Zinema independentea indartzen den heinean, estudioetako ahultzen ari delakoan dago Coppola, eta hemendik lau urtera belaunaldi berri honek sistema zaharra hautsiko duela ziurtatzen du. Berak ere, ordurako hirurogeita bi urte izango dituelarik, mugimendu horretan parte hartzeko gogo handia azaltzen du.

Hala izan bedi!!!



MARRAZKIAK
KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 13 27 20

GASTEIZ

DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak

kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako...
behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKO A

AMA LURRARI EUTSI

Asier Dz. de Karkamo / kazetaria

rotu zarete! Baina zuen erokeriak ere ez gaitu geldiaraziko. Gure "armarik" indartsuena bihotza dugu, baina ez pentsa bakarra daukagula. Herriak Lemoitz itxi zuen, baita Leitzaran salbatu ere. Garoña... bai, zuen Garoña eta munduko Garoña guztiak eroriko dira egunen batean, Herria ginetik pasatuko baita.

Zentral Nuklearrak, autobiderokeriak, Abiadura Handiko Tren suntsitzaileak, urtegiak eraiki ditzakezue, baina ez zaizue doan gertatuko.

Milioika milioi urte eta gure, zuen belaunaldia sortu behar gure ama lurra erabateko deuseztapenera daraman bidea eraikia izan zedin. Baina ez zaizue horren erraza gauzatuko. Ama Lurrak milaka eta milaka, milioika gudarik osaturiko gudarostea dauka eta, zuen inpunitaterik gabe, zuen gartzelarik gabe, bihotzarekin soilik, maitasunarekin bakarrik, zuen asmo guztiak zapuztuko ditu.

Ez, ez pentsa mugimendu ekologista gartzelaratzarekin ipurtzulo ondoan atera zaizuen garaua sendatuko zaizuela. Pertsonak, gizabakoak, foto eta zenbakidun plastikozko karneta inozo bat gartzelaratu dezakezue. Baina ez dago barroterik, ezta ama lurrarekiko maitasun sentimendua amatatuko duen sententziarik ere. Zaila da hori zuei azaltzea, sentimendu hitzaren esanahia kasik ezagutzen ez duzuen interes ekonomiko batzuen borrero zikin zairen zuei ulertaraztea.

Zu, politikoa sasidemokratiko, ahoa diru zorroa bezain zabalik beti daukazun hori! Ez ezazu ahaztu herriak hautatua zarela!

Zu, epaile sasidemokratiko, boterearen txoxongilo alua! Ez ezazu ahaztu azkenengo justizia

herriak ezartzen duela!

Zu, kazetari ofizialista, zure enpresako jefeari hain ondo xurgatzen diozun hori! Oker zabiltza iraganezinezko gerruntze baten atzean izkutatzea erraza izango zaizula uste baduzu!

Orain badakigu zerk egiten dizuen min. Orain badakigu zein zauritan sar diezazuekegun hatzamarra. Jakin badakizue sufrituko duzuela, baina uste duzuen baina askoz ere jasangaitzagoa izango zaizue oinazea.

Solidario bakoitzak kateaturik emango dituen lau urteak hamaika aldiz biderkatuko zaizkizue sententzia hori bultzatu, agindu eta exekutatu duzueni.

Jakin ezazue zuen zaramazko bizitzen azken egunerarte zuen kontzientziek egin duzuen gogoraziko dizuetela. Eta hala ez balitz, gu hemen gaude ahortzi ez dezazuen.

Harrien azpitik solidario berriak jaioko dira eta behin eta berriz kableak eta behar den gutzia moztuko dizkizuegu.

Ez! Itoitzen ez duzue urtegiak eraikiko!

Natura gurekin da eta gu Naturarekin. Beti izan da hala, eta hala segituko du izaten.

Atzo gauean haizearekin mintzatu nintzen, eta berdin-berdin egin dut gaur goizean urarekin, eta oraintxe suarekin. Ba al dakizue haizeak, urak eta suak zer esan didaten! Beraiek ere solidario direla. Hasi, beraz, dardara egiten!

Gora Itoitz!

Gora Solidarioak!

✓



GUREA

Jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33



BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

e u s k a l d u n o n

Egunkaria^{ren}

ASTE KULTURALA

Maiatzak 18-22 GASTEIZ

Maiatzak 18 EUSKAL SELEKZIOA

Partaideak:
Jose Anjel IRIBAR (Euskal Futbol Selekzioko entrenatzailea)
Iñigo SANTXO (ESAIT taldeko aholkulari juridikoa)
Jesus GARAI (Pilota federazioko lehendakaria)

Maiatzak 19 KOMUNIKABIDEAK

ETA EUSKARA
Partaideak:
Jon SARASUA (Bertsolaria)
Gorka KNORR (EITBko administrazio kontseilukoa)
Martxelo OTAMENDI

Maiatzak 20 EUSKARA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN

Hizlaria: Nekane SAN MIGUEL (Magistratua)

Maiatzak 21 TREBIÑO

Hizlaria: Roberto Gonzalez de VIÑASPRE (UDA elkarteko partaidea)

Maiatzak 22 Arratsaldeko 5etatik aurrera FESTA Plaza Berrian SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK Berbena: ARKAITZ Bertsolariak, etab...

Florida Kultur
Etxean

ARRATSALDEKO 8retan



Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia



VIAJES EROSKI
BIDAIAK

CASA DE CULTURA

Diputación
Foral de Alava

Arabako
Foru Aldundia

KULTURA ETXEA

KULTURA

CASA DE
ETXEA

HITZA KULTUR ETXEAN

MAIATZA

Maiatzak 7. Osteguna. Arratsaldeko 8etan

“KONTRABAJUA”. Kafe antzerkia.
• Mikel Martinez

Maiatzak 14. Osteguna. Arratsaldeko 8etan

“GOGOETAK”. Rock kantaldia.
• Marruma

Diskaren aurkezpena.

Maiatzak 28. Osteguna. Arratsaldeko 8etan

“AMA XURI”.
• Amaia Zubiria

Diskaren aurkezpena.

GASTEIZKO KULTUR ETXEA

Elizbaitelidiana, 4/a

Diputación
Foral de Alava

Departamento de Cultura y Euskera



Arabako
Foru Aldundia

Fundación San Esteban del Sabio Fundazioa
Kultura eta Euskara Saila